



HIRU ZIREN

Piarres Larzabal

Iturria: *Piarres Larzabalen idazlanak (II)*, Piarres Larzabal
(Piarres Xarrittonen edizioa). Elkar, 1991

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LarzabalHiruZiren.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

HIRU ZIREN

(1957)

Aintzin solasa

Larzabal jaun apezak idatzi du «Hiru ziren» ikusgailu hau 1957. urtean. Urte berean eman zuten Ezpeletan eta Donibane Garazin.

Huna nolaz hasi zen buru-lan huni:

Euskal-Herrian, urte heietan, bazen asko solas eta kalapita ere, batzu Ameriketarat joaitearen alde, bertze batzu kontra. Gizon gazte batzu jin zitzaizkon Larzabal jaunari galdatzerat, ean ez zuen antzerki bat ateratu-ko gai hortaz...

Baietz ba... eta lotu zen lanari, Ameriketan ibili gizon batzuekin maiz gurutzatuz, hango moldez hobeki argitzeko.

Bere ikus-moldea du ikusgailu huntaz agertu.

P Larzabal

Jokalariak:

BENAT

TEREXA

MENTABERRI

PANTXO

ANTON

PIERRA

NANI

KARMEN



ELENA
BATTITTA
MARGARITA
KAROLINA
HOTELERO
BENITA
GABRIELA
LETXERO
RANTXERO
BAKERO
MORO
INDIANOA
KANPERO
LEON
JOSEPH

LEHEN GERTALDIA

Joka-lekua:

Donibane Garaziko ostatu baten aintzina, zenbait mahain eta kade-
rekin.

I

BENAT ETA TEREXA

BENAT: (*Edaten ari*) Egun, nik uste, ez gira biziki buruz buru egoiten ahal-
ko.

TEREXA: (*Zerbitzaria*) Egun, hemengo plaza besta! Beldurtzeko da itoak
izanen girela!

BENAT: Orai dugu sinadura... Mentaberri Amerikanoa ixtantean hemen
izanen da.

TEREXA: Zure lau lagunak beti hitz beretan direa Ameriketarat joateko?

BENAT: Ez... Biek karrik egin daukute.

TEREXA: Nor eta nor gelditzen zirezte?

BENAT: Gelditzen gira: Garajako Anton, Etxebesteko Pantxo eta ni.
(*Ixtant bat ixilik dagotzi*) Bortz urte, Terex... Gehienik sei,
eta, Jainkoak nahi badu, berritz hemen izanen gira buruz-
buru...

TEREXA: Luze izanen da.

BENAT: Halere iduritzen zaut iraunen dugula... Maiz maiza elgarri izkiria-
tuz... Nik ez zaitut utziko, zuk ez banauzu uzten.

TEREXA: Nik ere ez zu. (*Ixtant bat ixilik*)

BENAT: Nehori aipatu duzuia gure arteko sekretua?

TEREXA: Ez... Nehori... Zuk?

BENAT: Nik ere nehoi... Nork zer behar du! Denbora jitearekin, aski goiz
izanen da denek ikas dezaten.

TEREXA: Uzten zaitut... Barnekoen zerbitzatzerat joaiten naiz. (*Jalitzen da*)

BENAT: Heldu naiz ba ni ere. (*Ixtant bat bakarrik dago, gogoetatua... Edan eta
sartzen da*) (*Terexa berritz agertzen da, mahaina altxatzen du,
nigar bat xukatzen*)



II

MENTABERRI, TEREKA

MENTABERRI: Agur, anderea!... Mahain hau okupatzen ahal duta?
TEREKA: Zerendako ez? Lehen jartzen denarena da.
MENTABERRI: Ba, erran nahi dut, izkirio lan batzuetan artzeko, zuretzat irabazirik gabe...
TEREKA: Ba, ba, libro da... Nahi duzun bezanbat hortaz baliatzen ahal zira.
MENTABERRI: Bon... ontsa da... Boo... Ekatzu halere boka bat.
TEREKA: Ontsa da.
MENTABERRI: (*Bere paperak larruzko zaku eder batetik jaltzen ditu. Terexak zerbitzatzen du*) Milesker!... Zu, hemengo alaba zira?
TEREKA: Ba jauna, hala niz!
MENTABERRI: Zuen aita, denboraz, Ameriketarat joan aintzin, ezagutu dut. Hil omen zen.
TEREKA: Ba... Hila da.
MENTABERRI: Zenbat haurride zirezte?
TEREKA: Hiru... Bi anaia eta ni!
MENTABERRI: Eta zer duzu? Ostaturik zuk segitzen?
TEREKA: Segitu nahi nuke... Anaierik beren partea egiten ahal badiotet segurik.
MENTABERRI: (*Irriz*) Eginen diozute, eginen diozute... Seriosa baitzira! Karatik seinale duzu!... Zuk bilduko duzu oraino senar balios bat, ostaturik huntarik hotel bat muntatuko baituzue!
TEREKA: (*Irriz*) Agian ba!

III

PIERRA ETA NANI,
DANTZARI BEZTI AGERTZEN DIRA

NANI: Errazu, Terexa, ekartzu otoi hunarat orratz eta haria... Bonetako xingola urratu zaio dantzari huni, eta behar ginioko josi.
TEREKA: Ekartzen segidan! (*Jaltzen da*)
MENTABERRI: (*Bi mutilerik*) Non dituzue dantzak?
PIERRA: Pilota plazan, partida denboran.

MENTABERRI: Ontsa duk... Usaia xaharrak segitzen dituzue!
PIERRA: To... Horra Elena eta Karmen!... Horiek eginen die jostura. (*Elena eta Karmen agertzen dira*)
ELENA: Zer nahi duzue?
TEREKA: (*Agertuz*) Huna orratz eta haria!... Nahi duzuia nik jos dezadan?
PIERRA: Ez... Milesker!... Eginen dauku Elenak... Elena, otoi xingola hau jos-azu boneta huni!...
ELENA: Gizonak, beti emazteen beharretan! (*Mentaberririk*) Zer dituzu, Mentaberririk jauna, bi mutil hau Ameriketarat bildu gogo?
MENTABERRI: Zerendako ez?... Nahi badute joan...
KARMEN: Hola segituz, hemengo mutil guziak joanen dituzu, eta gu geldituko gira mutzurdir!
MENTABERRI: Joaiten ditut, bainan frango ere gibelerat itzultzen... bone-tetan joaiten eta, zuen plazerrarentzat, xapeletan gibelerat itzultzen... Eta zuek, mutikoak, ez zireztea deliberatzen?
PIERRA: Lehenik, soldadagoak egin ditzagun. Gero ikusiko!
MENTABERRI: Ni ere zuen adinean, hol'hola ninduan... Geroztik egin diat bide, eta ez diat urrikirik!... Zozokeria duk gazte bat hemengo xuhurrerian bizitzea, Ameriketarat joanez, ahurra urrez bete dezakelarik.
PIERRA: Ez da errana, ez dugula guk ere holako zerbaite alderdi hartu beharko! Gure etxetan, ez dute gure beharrik... Badira gu baino lehenagokoak!...
MENTABERRI: Joaitetok, aski goiz hobe dik deliberatzea... Sinets neza-zue ni!... Eta deliberatzen bazirezte, ez kexa piaia eta gaineratekoaz... Eni aski duzue hitz bat salatzea!... Behar diren paper guziez kargatuko nuk!...
KARMEN: Neskato gazteentzat ez duzuia enplegurik Ameriketara?
MENTABERRI: Berdin... Nahi baduzue jin, badira «Ranchero» nausi eder batzu, oroz gainetik, eskualdun alabak nahi baitituzte emaztetzat...
KARMEN: Igort-zkitzu «Ranchero» hetarik zenbait hunat. Haatik, ez gero ileak sobera zuritu ondoan.
MENTABERRI: Jiten dira, jiten hetarik ere hunarat!... Ni ere hala jina nintzen.
KARMEN: Abisa gitzazu, bat edo beste emazteketarat abiatzen delarik eskualde hautarat.
MENTABERRI: (*Irriz*) Ez duzue nik abisatu beharrik!... Holako berriak hedatzen dira neskato gazteen artean, elizako zeinuez



barreiatuak balire baino fiteago... Ez niz beldur, jakin eskasian, damurik ukanen duzuela.

KARMEN: Nor dituzu, oraiko aldian, joaiten Ameriketarat?

MENTABERRI: Ixtantean, sinaduraren emaiterat, esperantza ditut hiru mutil gazte segur ezagutzen dituzuenak.

KARMEN: Nor?... Ean?...

MENTABERRI: Bat... Garajako Anton.

KARMEN: Te... Anton urgulutsu hori!... Entzuna nuen, osaba batek, haurrik ez duela han eta, bere segida utzi nahi diola... Segurki dagola han!...

MENTABERRI: Ez da naski hemen ontsa ikusia?

KARMEN: Nork ikusiko du ontsa, duen karaterarekin?... Errea, beti esker gaxtoa prest, eta dena ni; ba, segurki ezagutua da... Otobusako usaia dutenetan guti ikusiko duzu horren alde minztatuko denik... Eta bertze biak nor dira?

MENTABERRI: Bertzea, Etxebesteke Frantzua.

KARMEN: Frantzua, Frantzua!... (*Elenari*) Nor dun hori, no?

ELENA: Ez dakin? Kapillunbordako Martzelinarekin ibiltzen baitun?...

KARMEN: Ha, Pantxo!... Ba, aise ezagutzen dut... Bai, hori ere joaiten ahal da Ameriketarat!... Mutil neskatarik alfer bat da hori!... Orai duen hori, laugarrena du segurik... Erran, eta fama dun, Martzelina esperantzeta eman duela!... Segur nun hartako joaiten dela Ameriketarat... Bixtatik ihesi... No, ontsa dun, Martzelinaren amak, Margarita buhamisak harrapatzen badu.

MENTABERRI: Zointakoa da Martzelina hori?

KARMEN: Ba, horren ama, segur ezagutzen dukezu ba... Margarita Harritaldeko buhametarik, emazte larri bat, beti zare bat besoa... Ha, beraz Pantxo Ameriketarat!... Te, te, te!... Eta, hirugarrena nor da?

MENTABERRI: Hirugarrena, Agerreko Bernard.

KARMEN: Ha, Beñat... Hori ba... Hori mutiko seriosa da... Langilea eta laketa... Hori pena da hemendik joaitea...

ELENA: (*Boneta emanaz*) Ori zure boneta... Ean ikus nola duzun!... Arras ontsa duzu!... Gaitzeko arrakasta ukanen duzu!...

PIERRA: Bon... Orratz eta haria behar ditut itzuli... (*Neskatzeri*) Ale... Heldu zireztea zerbait edaterat?

KARMEN: Ez... Milesker... Ez gira egarri!...

PIERRA: (*Naniri*) Haugi hunarat!... Zerbait behar diagu hartu pagamentzat. (*Jalitzén dira*)

KARMEN: (*Mentaberriri*) Gu ere, joanen gira, zenbait «ranchero» hor gaindi aurkituko ote duzun!

MENTABERRI: Ontsa, ontsa... Domaia da ez baititug hogoita hamar urte gutiago!

KARMEN: (*Irriz*) Zuk, gogoz, hitzez... Eta guk... obraz. Sofri hor! (*Mentaberri ixtant bat bakarrik dago, paperak itzulikatuz*)

IV

BATTITTA, MENTABERRI, PANTXO

BATTITTA: (*Hurbiltzen da, idor*) Agur, jaun Mentaberri!

MENTABERRI: Agur, agur!

BATTITTA: Fama entzuna dut, gure mutikoa, Ameriketarat joaiteko, zurekin solasetan abiatua dela!

MENTABERRI: Nor zitut zu?

BATTITTA: Etxebesteke Battitta!... Pantxoren aita.

MENTABERRI: Egia da... Haren beha nago... Oraindanik jina behar luke, azken sinaduren emaiterat.

BATTITTA: Bon... Hortan gira beraz. (*Gogoetatua*)... Debru zirtzila!... Etxean fitsik salatu gabe!... Mesfidatua nintzen ba!... Baitu, zonbait eta zenbait egun ere, etxeko laneri tiro emana diotela... Eta, noiz du partida?

MENTABERRI: Laster... Zortzi, hamar egunen buruan!

BATTITTA: Zirtzila, alain zirtzila!... Bainan, ez da dena haren falta... Pusatzaleen falta ere bada!

MENTABERRI: Pusatzaleak badituia?

BATTITTA: (*Idorki*) Bai... Baditu... Eta, zu lehena! (*Kalapitan mintza ditela*)

MENTABERRI: Nik zer falta dut? Ez nuen ezagutzen ere!... Bera jin da niganat.

BATTITTA: Ba... Zuk eta zuk bezelakoek dituzue hemengo gazteak Ameriketarat tentatzen!... Mentaberri, zure lana trixtea eta kaltekorra da...

MENTABERRI: Nahi nuke jakin nola... Ez ote ditut nik hemengo gazteak laguntzen, bizipide berri batzuetarat gidatuz?



BATTITTA: Ba, bainan gure etxeak, gazteriaz husten dituzu! Eta harat joan nahiak, etxeko lanetako gogoia galtzen diote.

MENTABERRI: Amerikek, hemengo etxe gehiago altxatu dute, galdu duten baino!

BATTITTA: Beti Ameriketara erreusitu-eta itzuli direnak dituzue aipatzen... Eta, hamarretarik bi itzuli direnentzat, zortzi ez baitira gehiago agertu. Gero, guk ere badakigu hango berri zer bait.

MENTABERRI: Ez ditut gazteak enganiorik biltzen... Aintzinetik, elez eta zinemaz ere, ahal bezen ontsa argitzen ditut hango harat hunatez... Handik ere hainitzek, hor dituzte argitzale, ahai-de eta adixkide.

BATTITTA: Bai, hango biziaren eskualde ona, miraila garbian erakusten diozute... Bainan, miraila haren infrentzua erakusten diozueia?

MENTABERRI: Zuk, kabala bat saltzean, kabalaren itzalak aipatzen dituzuia?... Zuk bezala egiten dut nik ere... Eroslearen da itzalen ikustea.

BATTITTA: Hortan da zure makurra... Gazte horien furiaz baliatzen baltzira, arantzak gorde-eta, loreen bakarrik agertzeko!

MENTABERRI: Iduri luke, zure erranetarik, Ameriketara joaitea, galtzea dela! Nahi dena galtzen da han ere, hemen bezala!...

BATTITTA: Hum!... (*Kurri dabil, ixilik, eskuin eta ezker. Pantxo agertzen da*) Hor hiza?... Amerikano batez aberastu behar omen diagu gure familian. Hire ait'amek zer baiten jakiteko dretxoa ahal ziteian?

PANTXO: Paperak segurtatu-eta, errango nautzuen!...

BATTITTA: Eta, zer egingo duk Ameriketara? Zer uste duk?... Dolarrek, sasitan martxutxek bezala, pusatzen dutela?... Hemen bezala, izerdiaren gostuz duk han ere, diru egitea!

MENTABERRI: Halere, han, hemen ez bezalako aisetasunik du, artzaingotik nahi badu diru egin!

BATTITTA: Nun dauka hunek artzaingo ofizioa? Ez ditu egundaino gure etxeko ardi pezarrak bertzerik gobernatu-eta!

MENTABERRI: Hori bera aski du!... Gaineratekoek han laster eskolatuko dute... Ni ere egin ninduten!

BATTITTA: Ez bada hemen baino jarraikiago bere laneri, pleini dut hunen nausia!

MENTABERRI: Ba, ez du ez, han, hemen bezanbat besta eta okaxione izanenen, lanari ihes egiteko!... Bakarrik izanen da mendian!... Lana bera izanen du manari.

BATTITTA: Baditake... Agian ontsa aterako da... Nahi dukana egin dezakek... Adinean bai hiz... Haatik, hola plantatzen hizenaz geroz, ez zakala izan Etxebestean petrentzionerik... Urruntzen hizenaz geroz, arreba izanen duk ondoko.

PANTXO: Ene dretxoak uzten dazkot!

BATTITTA: Ontsa duk... Ama ere hemen duk nunbait... Agian ez dituk etxeko berriak bazterretik entzuten. (*Urruntzen da*)

MENTABERRI: Bon... Haugi hunarat... Huna paperak, prest presta... Hire sinadura die eskas! Aipatu ginitian kondizionalek onartzen badituk segurik... Irakurtu ahal dituk nik eman paperean?... To... Hiru sinadura emazkik... Bat, hemen!

PANTXO: (*Presaki mintzo*) Ba... onak izan ditela... Nik hemendik urrundu nahi dut, urrundu norapait lehenbailehen!

MENTABERRI: Zer «onak izan ditela»?... Hire sinadura ez ahal duk itsurat emaiten? To bigarrena, hemen sina zak!

PANTXO: Noiz da partida?

MENTABERRI: Zortzi, hamar egunen buruan... Azken xehetasunentzat, haugi hunarat igandean, hameketako.

PANTXO: Lehenbailehen joaitea dut nik galdatzen!

MENTABERRI: Joanen hiz, mutikoa, joanen hiz! Zer duk holako presa?... To, hirugarrena, hemen...

PANTXO: Ba, lehenbailehen lekuen hustea!...

MENTABERRI: Baietz... Lehenbailehen!

V

MARGARITA, MENTABERRI,
PANTXO, KAROLINA

MARGARITA: (*Agertuz*) Errazu, Mentaberri jauna, egia dea Ameriketara joaiteko, zurekin paperen egiten hasia dela Etxebesteko seme, Pantxo izena duen bat?

MENTABERRI: Ori, huna nun duzun!



MARGARITA: (*Pantxori*) Errak!... Ni, Martzalinaren ama nuk!... Badakik zer duzuen egina? Eta, badakik beraz zer gelditzen zaukan egitekola!

PANTXO: Nik ez dut fits ikustekorik Martzalinarekin!

MARGARITA: Fitsik ez ikustekorik?... Zer duk?... Lan tzarra egin eta, ondoan ukatzen?

PANTXO: Zure alaba penetan bada, aski du pena egileari jazartzea eta ez eni!

MARGARITA: (*Tira-ahala*) Zer dituk ele horiek?... Purtzil ustela hi? Zer dituk?... Hire obraz, bertzeak zikindu nahi?... Uste duka hortan kito hizala?... Haa! Errexegi lukek!... Mundu guziak jakinen dik, hi nor haizen! Tribunalari, emanen baitzioiat parte... Eta zuk, Mentaberri jauna, orai beretik hunen paperak arrastatzen ahal dituzu, berdin nik arrastaraziko baititut... Etxebesteke semea hizala-eta, Kapillunbordakoa zer dauzkak?... Hire zangoko errauts?

KAROLINA: (*Andere, esku batean «Revue de la mode» agerkaria; preziatuki mintzo*) Zer da?... Zer duzue hola kalapitan?

MARGARITA: Ho, andere Karolina, ontsa jina zira... Zure semearekin ari nintzen!

PANTXO: Ama, ez zozula kasurik egin!

MARGARITA: Ba... zu eta ni, horrenganik amatxi behar baigira!

KAROLINA: Ho... gazte ixtorioetan ni ez naiz barna sartu nahi!

MARGARITA: Ha!... Ixtorio horietan ez sartu nahi!... Zure semeak hola ezarri balu jaun meraren alaba, sartu nahiko zinuken ba! Ala, ahantzia duzuia ene alabari gertatzen zaiona, zuri gertatu zauntzula!... Eta, kontesko izan zinela orduan, zure «ixtoriotan», zure ama sartu baitzen!

KARMEN: Ho... Ez dautzut erreputarik emaiten... Ez dut zikindu nahi!

MARGARITA: Ez zikindu nahi! Ez duzu zikintze beharrik! Aski zikindua zira hol'hola. Zuen ohoreaz, hura galdu ondoan, zirezte oroitzen... Ustel apainduak, zuek!...

KAROLINA: Otoi, bakea emazu zure ele komun horiekin!

MARGARITA: (*Karolina imitatu*) Bakea emazu... Bakea emazu... Ba, bakea emanen dautzut, andere Karolina... Sarri artio bederen... Tribunalari ideki artio balia zaite zure ohoreaz, ordu artio, an-de-re Ka-ro-li-na... (*Urruntzen da*)

KAROLINA: Ho... Zer jende itsusia hori!... Eta, sinatu duzuia, Pantxo?

PANTXO: Ba, ama, sinatu dut... Aita ere jin da!

KAROLINA: Aita jin?... Eta, badakia Ameriketarat funtski ari zirela?

PANTXO: Orai, denak badazki.

KAROLINA: Nola hartu du berria?

PANTXO: Hartu du!...

KAROLINA: (*Mentaberri*) Ba, ene senarra pixka bat leheneko modakoa da... ez du batere konprenitzen gaztek behar dutela abusatu. Eta, beti, mutiko horri, gerla egiten zion, sobera jaltitzen zelakotz... Uste du beti, duela berrogoitahamar urte bizi girela. Eta, hortakotz, mutikoak erakutsi dautalarik Ameriketarat jaoiteko desira, gogotik erran diot: «Zoazi, haurra!... Han bederen bakea emanen dautzu!...»

MENTABERRI: Ba, segur aski urrun izanen baita hemengotarik!

KAROLINA: Eta, gain gainetik gomendatzen dautzut ene mutiko hau... Nahi nuke hunen nagusiari erraiten bazinio, otoi goxoki erabil dezan, beti goxoki usatua baita. Eta, gain gainetik, hotz beroak dituela partida.

MENTABERRI: Segur eginen diot komixionea!

KAROLINA: Eta? Noiz duzue partida?

MENTABERRI: Zortzi, hamar egunen buruan!

KAROLINA: Oas, zoin fite!... Zato, Pantxo... Bideko erosi behar dautzut trikota pollit bat... Hura izanen duzu amaren oroitzapena... Agur beraz, jaun Mentaberri! (*Urruntzen dira*)

MENTABERRI: Ba, jaun andereak. (*Bakarrik, paperetan okupatua*) Emazte hori ere, ttutta untzi zerbait duk, nik uste... Eta semea, amatar naski. Ez dik horrek Ameriketarat joaitea beharrik galtzeko! (*Irriz*) Kaliforniako mendietan bakarrik izanen delarik, griñatuko duk to biziki horren nausia, horren hotz beroaz... To, huna Garajako Anton!

VI

ANTON, MENTABERRI

ANTON: Agur, jaun Mentaberri.

MENTABERRI: Agur, Anton. Beraz heldu hiz, hi ere, sinaduraren emaiterik?

ANTON: (*Karrolli*) Lehenik, badituz xehetasun zenbait galdatzeko!

MENTABERRI: Zer xehetasun?



ANTON: Mesfidatzeko zutaz errana zautaten... Denboraz makinungoan ikasi zinuela-eta... Han eta hemen ni ere alatu niz... Nola daiteke, eni bertzeari baino gehiago galdatzen duzula pape-
ren egite sari?

MENTABERRI: Zer? Hortan gituka?... Hatzeman dituk, hik ere, buru berotzaleak!

ANTON: Egia da edo ez da egia! Nor izanaren arauko sariak galdatzen dituzula?

MENTABERRI: Lehenik, oroit hadi huntaz: Hihaur jin haiz eneganat!... Nitán konfientzia gehiago ez izaitekotz, aski huen bertze-
tarat joaitea, edo paperak hihaurek moldatzea.

ANTON: Ba, hala egin behar nukela, kontseilariak izan ditut.

MENTABERRI: Bon... Mintza gaiten gizonki... Zuen paperen egitetik ene irabazia badutala, bixtan duk... Ez ahal duk nehor lanean urrik ari!

ANTON: Hori konprenitzen dut.

MENTABERRI: Bertzalde, paperak ez dituk berdín hemengo batentzat, eta, mugaz hunarat pasaturik, ameriketarat joaiten den nabartar batentzat... Harek xahupide gehiago badik...

ANTON: Nahi dut. Bainan, zertako ez dugu soma bera pagatzen hemen berekoek?

MENTABERRI: Nahi duk jakin zerendako Pantxok eta Beñatek, hik baino merkeago duten ene lana? Huna zerendako!... Horiek biek Konpainia batentzat artzain joaiteko sinatu die... Nik, Konpainia horri, horien izenak fornitu-eta, kito izan nuk... Konpainiak berak egin ditik horientzat, behar ziren des-
martxa guziak. Hortakotz, horien lana guti gusta zaitak. Aldiz hi, hiharen kondu joaiten haiz, hire osabari buruz... Hortakotz, hiretzat ibili behar izan diat, kontsulan, minix-
terioan eta bertze asko tokitan, hor gaíndi... Horra zertako, hire paperak gehiago gostatzen diren, lagunenak baino!... Bahiza orai?

ANTON: Paper botigak!... Zenbait gízentzen da, horien medíoz... Ekartzu hunarat sina ditzadan.

MENTABERRI: Hala duk!... Bainan horiek gabe, fits ezin egin!... To, sina zak hemen... Eta horien biltzeko nor-nahi ez on... Bigarren sinadura emak hemen... Eta, biziak erakutsiko dauk eskuz-
esku gízonekin bide hobeki egiten dela mutur-hauska baino... Eta, hirugarrena, hemen!...

VII

BENAT, MENTABERRI, KARMEN,
ANTON, TEREZA, ELENA

BENAT: (*Agertuz*) Heup!

MENTABERRI: To... Hor hiza, Benat... Hi hintudan eskas... Pantxo izana duk jada sinatzen... Zortzi, hamar egunen buruan duzue partida... Azken xehetasunendako, igandean, hemen berean, hameketan, elgar ikusiko diagu.

ANTON: Ontsa da... Bon... Nik uzten zaituztet...

MENTABERRI: Ba... Igande artio beraz... (*Beñati*) Jar hadi hor! Eta?... Beti hire hitzean hiza edo badituka kondizione zenbait, joan ez zaukenik?

BENAT: Sinatzeko prest naiz!

MENTABERRI: Beraz, ados gituk! Ene lana pagatzen dautak! Konpainiak piaia pagatzen dauk hemendik eta hotelerraino... Hotelerrat heldu-eta lanari lotzen haiz, eta, hire lanetik, Konpainiari itzuliko piaia saria.

BENAT: Zer behar dut sinatu?

MENTABERRI: To, hiru paper hauk sinaizkik... Hemen bat... Hik ba, hik egingen duk bide, osagarriak laguntzen bahu segurik... Hemen bi...

BENAT: Agian ba... Ez luke balio bertzenaz hola urruntzea!

MENTABERRI: Hemen hiru. (*Paperak bilduz*) Orái segidan, joan behar diat Baigorriat, eta handik Itsasurat... Ikusi behar ditiat, bertzeak beren hitzean direan. (*Montrari behatuz*) Oi! Berant aire nuk.

BENAT: Zerbait hartu nahi duzuia?

MENTABERRI: Ez... Milesker... (*Urruntzerat abiatzen da*) Te, te, te... Amerikano batekin ezkondu nahia, errabiatua den presuna gazte bat, baduk hemen... Nork zakik, denborarekin?... Ori, andere gaztea, hemen «ranchero» gei bat baduzu, zurekin gogotik konpainiatuko dena. (*Jalitzen da*)

KARMEN: (*Agertuz*) Egia dea Ameriketarat joaiten zirela?

BENAT: Egi egia!... Oraintxet sinatu dut.

KARMEN: Hol!... Ez zautzuia zerbait egiten, hola Eskual-Herriaren uztea?



BENAT: Ez dut ez plazerrez utziko!

ANTON: (*Leibo barnetik*) To, nik uste harekin hintzela eta, hi neska hune-kin!

KARMEN: (*Kexu*) Ez duk bertzerik erraiteko enetzat... Asto lilia, hi!

ANTON: Eta?... Sinatu dazkok paperak?

BENAT: Ba... Hik ere, omen!

ANTON: Ba... Bainan, lehenik, jaun horri erakusterat eman zioiat, bere solas eder guziak, diru biltzeko jukutria batzu dituela... Ez dezan bere burua, sobera apostolutzat har!

KARMEN: (*Bazterrerat mintzo*) Zozo burua!... Iduri berak, denek baino gehiago jakin.

BENAT: Nik ez nian arrazoinik haren miazteko.

ANTON: Igandean, azken afari bat egin behar ginikek denek betan!

BENAT: Ba, ni ere hortako nukek, bertzek nahi badie segurik!

ANTON: Elgarrekin ikusiko diagu, igande goizean... Bon... Uzten zaituztet... (*Gordetzen da*)

BENAT: Ontsa duk.

KARMEN: Segurki joan dadila bixtatik!... Zer mutil biguina hori!

BENAT: Te, huna Terexa! (*Keinu egiten dio*)

KARMEN: Ho, ez dakizu, Terexa? Benat, Ameriketarat joaiten zauku!

TEREXA: Ha, baia?... Ori, pena da... (*Mahaina xukatzen duela*)

KARMEN: Ho, ba pena da... Hoberen guziak urrun ari zauzkigu... (*Benate-ri hurbiltzen zaio*) Zure adreza igortzen badautazu, hemen-go berriak emanen daukitzut... Maite nuke hango norbaitekin letraz gurutzatzea.

BENAT: Ha, gaixoa!... Utz nezazu lehenik harat heltzerat!

KARMEN: Ez zira betikotz joaiten? Itzuliko zira?

BENAT: Hala dut esperantza.

KARMEN: (*Ergelki*) Hi, hi, hi... Bitxi izanen zaut, zu xapeletan ikustea... Hi, hi, hi... Sarri balean izanen zirea?

BENAT: Beharbada ba... Beharbada ez... Nola helduko naizen!

KARMEN: Hi, hi, hi... (*Terexari*) Badakit ba zuk zer pentsatzen duzun!

TEREXA: Zer pentsatzen ote dut?

KARMEN: Mahain hau okupatuz geroz, behar ginukela zerbait hartu... Hi, hi, hi...

TEREXA: Ez, ez... Ez naiz hortarik ari den gutienik ere.

ELENA: (*Agertuz*) Neska, nun haiz?... Mugi hadi!... Pesta hasten dun!... Gure tokiak galduko ditinau!...

KARMEN: (*Xutituz*) Heldu nun... Heldu nun... (*Irri polit batekin*) Sarri artio, Benat!

BENAT: Ba, sarri artio!

KARMEN: Ekarzu ba eskua, alo!

BENAT: (*Eskua tinkatuz*) Ori, ori... Sarri artio. (*Karmen urruntzen da. Terexari tinkatuz*) Ez zirea jelos?

TEREXA: Ez, den gutienik ere... Ez baita hori on, bost urtez norbait leial egoiteko.

BENAT: Bortz urte!... Beharbada sei!... Luze izanen da... Agian gure amodioa beti azkar egonen da.

TEREXA: Gure Jainkoak lagunduko gaitu... Nik, egun guziez, otoitz bat egingen diot zuretzat.

BENAT: Ori... Ideia bat emaiten dautazu... Ez niz otoitz egilea, bainan oherakoan, «Agur Maria» bat bederen egingen dut, nik ere zuretzat.

TEREXA: Hola, gure izpirituak, egun guziz gurutzatuko dira.

BENAT: Eta, hola apailatuz, ez zaut iduritzen, deusek barreiatuko duela gure amodioa.

OIHALA



BIGARREN GERTALDIA

Joka-lekua:

Kaliforniako ostatu barne bat. Hango puskak, hango beztidurak izan beite.

I

HOTELERO, BENAT, PANTXO

HOTELERO: (*Lanean ari kontuar giblean... Ez du ikusten Benat sartzen... Hau jartzen da... Trixte da*) Ha!... Hor haiz-eta! Pasaia zu zarete pixka bat?

BENAT: (*Idorki*) Sobera.

HOTELERO: Sobera, sobera!

BENAT: (*Kexu*) Hamabortz egun badu hemen girela, eta ez dugu bertzerik egiten. Nahi nuke jakin zuk aipatu kanperoa noiz segur jinen den, gu hemendik mendirat joateko... Ez gira gu Rostchild, hola hemen, bi besoak gurutzaturik bizitzeko.

HOTELERO: Errak, errak... Ez ahal zarete malurus... jana, edana eta loa izanez geroz, zer behar duzue gehiago?

BENAT: Ez gira hunarat zor egiterat jinak, bainan lan eta diru.

HOTELERO: Hemengo zorrak laster pagatuko dituk mendiko irabaziekin... Eta, behere hautan haizeno, balia hadi biziaz... Gain hetan egunak luze eta bortitz dituk gero... Zerbait dakiena mintzo zauk.

BENAT: Bostgarren eguna da, kanperoa famatu hura hemen izanen dela, faltarik gabe, hitzemaiten dautazula... Eta kanperorik, egun oraino, ez da seinale. Dudan nago, kanperoa ote dakien ere, gu hunarat helduak girela.

HOTELERO: (*Kexu*) To... Nitaz ez bahaiz fida, galde zok bere alabari. Alaba ixtantean hemen izanen duk... Gurearen bilarat etortzekoa duk, Etxegaraien hotelerat afariterat joateko... Hi ere, hango haiz, dudarik gabe, sarri.

BENAT: Hango edo... oheko!

HOTELERO: Hihaurek ikus. (*Ixtant bat ixilik. Pantxo sartzen da... Agur eta agur*) (*Pantxori*) Sarri, badakik Etxegaraien urte betetzea dela?... Haren hotelean haiz, dudarik gabe, afariteko?

PANTXO: (*Irriz*) Bitxi da hemengo usaia! Kasik arrats guziez, hotel batean bada norbaiten urte-muga... Nausiarena, haren alabarena, edo bederen kozinariarena!

HOTELERO: Hobe zuentzat! Afaria urririk izanen duzue!

PANTXO: (*Irriz*) Ba, jana kitorik emaiten duzue holakoetan, bainan gomitatuek pagatuz edaten dituzten wiskeykin, eman afariaren saria aise biltzen duzue!

HOTELERO: Bixtan duk... Ez gaituk urririk ariko jende hazten.

PANTXO: To, kanperoa alaba, Benita, heldu da!

HOTELERO: Ba... Gure Gabriolarekin hitzartuak dituk, Etxegarai baitarat afariterat joateko.

II

BENITA, BENAT, HOTELERO, GABRIELA

BENITA: (*Sartuz, alegeraki*) Hor zarete?... Alo, Benat eta Pantxo, laster beztizaitzte... Etxegarai baitan behar ditugu fandangoak eman, lehertu artio!

BENAT: (*Ilun*) Ni ez niz, arrats huntan, hemendik mugitzen.

BENITA: Zer duzu?... Bihotzean min?... Alo... Behar dugu min hori tratatu... Hotelero, wiskey bat deneri!... Non da Gabriela?

HOTELERO: Ba, agertuko da laster!... (*Benati*) To, orai hor duk kanperoa alaba!... Galde zok aita noiz heldu den zuen bilarat!

BENITA: Aita!... Egun arratsaldean etorria da!

BENAT: Ez da goizegi!

GABRIELA: Ai, Pantxo, Pantxo... Zu lagun, Kalifornian kurrituz, fandangotan bizitzekoa irabaz ginezake... Ale, nere turnada, orai! Huts baso horiek! (*Edaterat emaiten diote*)

PIERRA: (*Irriz*) Artzaingoan ez badut erreusitzen, jinen naiz menditik gibelerat, eta lotuko gira biak dantzako ofizioari.

BENITA: Benat eta ni, etorriko gira zuen lagun, ttunttun eta atabalarekin.

BENAT: Nik, ardi joarez nahiago dut entseatu, ttunttunez baino!

GABRIELA: Beztitzerat noa... Agozte ixtant bat nere beha!



PANTXO: Ba, nik ere ganberaraino joan behar dut, bizar hunen poxi bat leuntzerat! (*Biak jalitzzen dira... Benita eta Benat ixtant bat ixilik dagotzi*)

BENAT: Zure aita noiz jinen da hunarat!

BENITA: Ixtantean, nik uste... (*Ixilik ixtant bat*) Errazu, mendirat joaitean, nere aita izango baituzu kanpero, harekin komixione zenbeit bialduko daukitzut.

BENAT: Zer komixione?

BENITA: (*Ezin atrebituz bezala*) Ez baituzu hemen nehor familiatik... Familiakoa banintz bezala... (*Ixtant bat ixilik daude. Letxero eta Rantxero sartzen dira, pixka bat edariak harrotuak*)

III

LETXERO, RANTXERO, BENITA, BENAT, HOTELERO

LETXERO: Eheup! Agur, Benita... Agur hi, gazte... Laster maitatu duzue ziek elgar!

BENAT: Agur... Laster jujatzen duzu, zuk ere, elgar maite dugula!

LETXERO: Ba... Hiru lerrotan adinez pasatua nuk gero... Eta, hainitz ikusiz, laster jujatzen ikasten duk... Hoo... Ez diat gero erraiten gaizkirik egiten duzuela... Ez, ez... (*Oihu*) Hotelero!... Ean, hunat whisky bana.

HOTELERO: Heldu, heldu!

LETXERO: Bota hunarat baso bat!... Nik uste, hamabortzgarrena diagu, baina edan dezagun aintzinat... Edariak kontserbatzen omen dik!

BENAT: Hemengo edateko moldean, bakotxak bere aldan denen turnada pagatuz, ostalerotik haste, hertzeak gazterik idortzen bide dira!

LETXERO: Ha, gazte!... Zer hu? Whisky xorta batek izitzen?... Ez bahaiz whisky xorta baten jasaiteko on, habil etxerat... Habil etxerat!... Hortako ez bahaiz, hobe huen, hire etxetik ez mugitu... Nik ez zekiat zertarat jiten diren Ameriketarat euskaldun gazteak!

BENAT: Zertarat? Zu jin zinen bezala, artzaingotik diru pozi baten egiterat, dudarik gabe!

LETXERO: Dirua, dirua!... Ez duka ordean ikusten, ardien prezioak beti beheiti ari direla?... Mendian pekatuko dukalarik, bakarrik han nunbait galdua, zazpi aldiz oraino, nik erabili gogoeta berak eginen dituk!... Zertarat jin haizen hunarat!... Zeren-dako ez haizen han berean, zerbait lani lotu... Sinets nezak, gazte!

BENAT: Eni eman kontseilua, zerendako ez zinuen zuhaurek segitu?... Nolaz gelditu zira hemen?

LETXERO: Ha, gazte!... Hainitz hunat jin Eskualdunen ixtorioa, eta enea, berdin dituk... Jin nindian, bortz, sei urteren, hamar urteren buruan gehienik, etxerat berritz itzultzeko xedearekin. Baina itzultzeko urteak jin zirelarik, beti urte bat gehiago hobe nuela hemen etsitza, pentsatzen nuen, holako edo holako afera on baten erreusitzeko... Eta, emeki emeki, urteak joan dituk... Eta ni beti hemen!... Sinets nezak, gazte!... Har-zak xedea, bortz sei urteren buruan, gertatzen dena gerta, etxerat itzultzeko... Eta, tenorea jitean, ez hadila egun bat gehiago hemen zahar.

BENAT: Orai, zertarik bizi zira?

LETXERO: Ni letxero nuk, eta hau rantxero... Mendia on duk gaztentzat, baina zahartuz geroz, ixterrekin toki leunak nahi ditie.

RANTXERO: Bai, mendia, orai fitsik ez duk... Orai biranazka dituk, eta mendi zolan han die beren «rulota», radio eta su-gazarekin... Ez zuan hola to, gure denboran!

LETXERO: Hire denboraz hiza arrangura? Zer erran hezake ene denboraz? Guk, etsai ginitian, ez bakarrik otso-kujoteak, gator-basa eta sugeak... ez bakarrik eritasunak... baina denak baino tzarrago, bakeroak... (*Errabiarekin*) Bakero madarikatu ustelak!

RANTXERO: Konda-ozu huni ere, behin zer egin zautzuten!

BENITA: Bon, ni, Gabriela zer bilakatzen den, ikusterat noa. (*Jalitzzen da*)

LETXERO: Zer duzu?... Sobera ezagutzen ene ixtorioa? Berdin du... (*Beniti*) Bakeroak, behi-zainak dituk... Hastapen hetan, ez zuan behi artalderik hemengo mendietan, baina bakarrik ardi artaldeak... Behiak muntatu eta, hasi zituian kalapitak, artzain eta bakeroen artean, pazka-lekuen gainetik... Batzuk eta bestek, pazka-leku berak nahiz.

Behin, ene kanporat jin zituian, bi bakero, ene ardiak, ziren tokitik alda netzadan lehenbailehen, behiak behar zituztela han



ezarri... Ezetz, ez nituela ardiak handik aldatuko. Loto gintuan kalapitan. Badakika zer egin zautaten?... Hartu... Kristo bezala, arbola bati estekatu, eta han utzi... Eta, ene bi zakurri, ene kanpoko bi untzi buztanetik estekatu eta debruetarat igorri hek eta heiekin ene bi mila ardiak.

Gau bat eta egun bat, han egon ninduan estekatua, kanperoak atzeman artio, kordez kolpatua, ahuldua, salbu hi eta, ene beharrez galtzak oratuak... Huuu, bakero zikinak!...

Baduk hemen oraino, ene denborako bakero tzar bat!... Jiten duk hunarat noizean behinka... Orain aberastua, nausi handi bilakatua duk... Bainan, bakero alimale on bat izan duk to hori! Ez diagu ez, harek eta nik, konplimendu hainitzik elgarri egiten!

HOTELERO: Noren turnada orain?

BENAT: Enea!

HOTELERO: Edan ausarki! Hunek kentzen dik tripako mina!

BENAT: Noren tripako mina?... Zurea ala gurea?

HOTELERO: (*Erdi kexu*) Hik edanak, ez dik hainitzik nehorenik kenduko!... Nik ez zakiat, nola altxatzen dituzten Euskal-Herrian oraiko gazteak! Ez dute, ostaturat sar-eta, edaten ere zenbaitek! (*Jalitzen da*)

BENAT: Dударik gabe, oraiko ostalerek ez dakite heien laket-arazten ostatuetan.

LETXERO: (*Apaletik*) Hunek beti, bere zazpi ahalak ibiltzen ditik, hunarat sartzen direneri, bere edariaren sakatzeko... Lotkorra duk, lotkorra, gizona!

BENAT: Ez dakit sobera on den ostaler bat lotkorregi izan dadien... Enekin segurik, sal nahiaren izaria beiratzuz, gehiago sal lezake.

LETXERO: To... Hotel huntan, zenbait eta zenbait artzainek, menditik jautsi-eta utzi ditie beren sakeleko sosak. Eta frangok, beren irabazi guziak!... Kasu emak, gazte, menditik jautsiko hai-zelarik... Izigarri duk orduan tentamendua, pestan eta zurrutean, behere hautan bizitzeko... Eta, hainitzek, penatuki luzaz irabaziak, hemen, ixant batez garbitzen dituzte.

BENAT: Ez zaitela kexa... Hemengo molde argiturik, heldu gira oraiko gazteak.

LETXERO: To, to... Huna nun heldu den, oixtian aipatu bakero tzarra... Debru mutur beltza!

IV

BAKERO, HOTELERO, LETRERO, BENAT, RANTXERO.

Gero MOTO eta INDIANO

BAKERO: (*Bakeroen xapel handia burnan... Saluantzji eder batez dio*) Arratsalde on, jaunak! (*Denek ibardesten diote, salbu Letxerok... Esku zartaka, deitzen du Hotelero*)

HOTELERO: (*Agertuz. Gaitzeko errespeturekin, bere mahain, kadera, pipatzeko, apailatzzen dizkio*) Arratsalde on, jaunak!

LETXERO: Ba dik ba horrek konplimendu... Baitu huntarik (*diru keinua*). Bere mahaina ere beti erresalbatua dik horrek hemen.

HOTELERO: (*Letxeroki*) Zuk, otoi, gizon hori ixilik utziko duzu. (*Bakero zerbitzatzen du*)

LETXERO: Jakin-eta gizon hori zer mandila izana den, horren ikusteak berak, barne guzia nahasten daitak... Pu, zikina! Horren kontzientzia eta zerri-zola, berdin garbi dituk... (*Bakerori*) Bakero ustel zikina!

HOTELERO: (*Izigarri kexu*) Zu... Zoazi kanporat hemendik, eskandala eman nahia bazira hemen!

LETXERO: Joanen nuk, joanen nuk, hotelero, goiti egin nahia emaiten daitak gizon horren ikusteak berak... (*Rantxerori*) Heldu hiza to! (*Bakerori, jaltzen*) Bakero... Urdea!...

HOTELERO: Higuin tzarrak!... (*Bakerori*) Barka-ozu... Edaria da mintzo!

BAKERO: Bego, bego... Ez da deus!

HOTELERO: Urruntzeko hobeak dituk, bazter nahasle horiek! Nik, denekin behar diat gero bizi... Ez diat horien arteko saltsan fitsen beharrik.

To, horra nun heldu diren bertze bi herbail... Errana zioteat ba, sar ditela bakarrik ostatuan, nehor ez delarik... Bertzenaz, ez!... (*Moro eta indianoa agertzen dira... Lehenak bizkarrean dauka keza bat xupeta ziratzeko puskekin. Bigarrenak bi taula badauzka aintzin gibeletan, bera «zanduitx» dagola erdian... Taula hetan izkiriatur da edozoin pesta edo sal-gailuen erreklama, itxurazko apaindura zenbaitekin. Erreklama, anglesez izan bedi*)

HOTELERO: Beltzak debruetarat!

INDIANO: Here is no apartheid. (*Pronontzia: Hier is no aparzei*) It is the law! (*Ite iz ze o*)



HOTELERO: Ez dezaket igor... Legea hola da!

BAKERO: Bego... Berdin du...

HOTELERO: Orai artio, larru koloratu gizonak ez zituan libro, larru zurien ostatueta... Orai, lege zikin bat egin ditek... Horiek ere non-nahi haizu dituk.

BENAT: Zertako ez litezke haizu? Horiek ere, gu bezala, gizonak ahal dira!

HOTELERO: Ha... Ageri duk ez ditukala ezagutzen arraza horiek! Utz horieri utz, zangoa hire etxean sartzerat... Laster berak eta bere familia ere sartuko dauiate, eta hihaur kanporat emanen!

BENAT: Ba, anartean, zenbait eta zenbait dolar zuretuco dituzu, horier saldu wiskyarekin.

BAKERO: *(Morori)* Hello, boy!... Zapatak!

MOTO: Bai jauna, berehala!... *(Morok zapatak Bakerori ziratzzen dizkeio)*

V

LEHENGOK PANTXO, BENITA ETA GABRIELA

PANTXO: *(Benateri)* Ale!... Heldu hiza afariterat, Etxegaraien hotelerat!...

BENAT: Ez... nik hobe diat hemen egon, kanpero arrats huntan heldu bada ere!

BENITA: Bai, gero ere izango duzu, bai, harekin egoiteko astia.

PANTXO: *(Irriz Morori begira)* So egizak, so egizak, nola ari den! Ofizio bat duk ba hau ere!... Ez zaitak iduritzen ofizio mota horieri euskaldun bat aise lot daitekela... Edo behar likeie arrunt errekan!

BENAT: Beren bizia hola jalitzen badie, arrazoin die... Ez dik ofizioa behatu behar, bainan zer emaiten duen.

PANTXO: To, nik segurik, ene burua hola ikusi baino, nahiago nikek errekarri behera aurtiki ere...

BENAT: Nork zakik, egun batez, ez garen holako ofizio batez behartuko, bizitzekotz?

PANTXO: Debruak erabilki-hia?... Ez araziz?

BENAT: Nork zakik.

GABRIELA: Ale... Goazen bestarat!

BENITA: Atoz, zu ere, Benat!

BENAT: Ez, Benita, zure aita ikusi artio!

BENITA: Bon, beraz, ni ere ez naiz joango... Hemen nago.

BENAT: Ez... Ez zaitela nigatik geldi... Hitz emaiten dautzut... Egonen naiz, ixtant bat, zure aitaren beha... Eta, ez bada jiten, edo jiten bada ere, gure solasak erabili-eta, zuenganako naiz!

BENITA: Faltarik gabe gero... Hitza atxikiko ahal dezul!

BENAT: Ba... Ene hitza hitz da.

GABRIELA: Goazen, Benita... Jinen dun gibeletik Benat!... Ixtante artio, Benat. *(Jalitzzen dire)*

BENAT: Bai, ixtante artio. *(Ixilik... Morok bere lana finitzen du, saria eskuratzen eta wisky bat manatzzen)*

VI

LEHENGOK ETA ANTON

HOTELERO: Hi, bakarrik hemen?... Zer hago?... Kanperoren beha?

BENAT: Ba... Egun bederen, ez ahal naiz debaldetan egonen?

HOTELERO: Berak erakusterat emanen dik... To, kanperoa ez bada ere, hor bertze hire adixkide bat heldu duk!

BENAT: Nor?

ANTON: *(Sartuz)* Agur, jaunak!

BENAT ETA HOTELERO: Agur!... *(Hotelero jalitzzen da)*

ANTON: Hor hiza oraino?... Ez hiza Etxegarai baitarat heldu?

BENAT: Sarrixago... Ixtantean, hemen izanen omen baitiagu kanperoa... Haren beha niagok.

ANTON: *(Abapalez)* Ontsa ezagutua duka hoteleroa?

BENAT: Zerendako?

ANTON: Mesfida hadi hortaz... Baliatzalea omen duk... Sosa sendi badu, kianta atxik ahala atxik artzen omen duk... Kanperok berdin erosiz, ahal bezen luze jin diten hemen dagotzinen xerakat!

BENAT: Zer nahi duk egin dezagun?... Eta, hi, ari haiz hire lanari ohar-tzen?

ANTON: Ba... laster hartu diat ene osabaren garaja hura. Baditiat lau langile meneko.

BENAT: Biba hil...

ANTON: Uste diat, osabaren gostuko izanen nukala!

BENAT: Hobe, hobe!...



ANTON: Bon... Errak, berant aire nuk jada... Beraz, gurekin izanen haiz ixtantean?

BENAT: Ba... Halako xedetan nauk.

ANTON: Ixtante artio beraz, eta (*ahapetik*) mesfida hadi hoteleroaz. (*Jalitzen da*) (*Moro eta Indianoak, laster eta ixil, whisky botoilatik, baso barra whisky ebasten dute... Hotelero sartzen da... Ohartzen da, zer-bait behar ez den badabilala airean, bainan ez daki nor akusa*)

HOTELERO: Ez zakiat, hemen, zerrikeria ez ote den nausitua!

BENAT: (*Bizi-bizia*) Gogoeta bera naukan ene baitan.

HOTELERO: Hik?... Zer zerrikeriaz duk errenkura?

BENAT: Hamabortz egun hautan kanperoa ez ageri-eta, nun dagon, ez ote zen hor jukutria zerbait, haren hemendik, ahal bezen luzaz, urrunt begiratzeko.

HOTELERO: Zer jukutria nahi duk izan dadien?

BENAT: (*Idorki*) Ba omen baitira kanperoak, hotelerako treina huts egiten dutenak, hoteleroak hala galdatuz.

HOTELERO: (*Kexu*) Beha-zak!... Lehenago ere erran dauiat, nik ez diatela deus hobenik, hire kanperoa hoin berant heldu bada... Hasteko, ez bahaiz hotela huntaz kontent, bertzetara libro haiz.

BENAT: (*Idor*) Baditake lehen eta azken aldikotz hartu dudan hemen ene ganbera!

HOTELERO: Lehena haiz, hola errenkuraka hemen entzuten dudana. Ez zituan holako hire aintzineko gazteak, ez eta ere hire lagun Pantxo hori!

BENAT: Ez... Beharbada ez ziren hola, ez baitzuten, nik bezala, aski beko-kirik, pentsatzen zutenaren erraiteko.

HOTELERO: To... Horra hire kanperoa non den... Kontsola hadi... Agur, Bixente... Zer modu?

VII

KANPERO, HOTELERO, BENAT

KANPERO: Agur, agur deneri... Gu, ondo... Zuek ere bai?

HOTELERO: Bai, bai... Ori, momento onean heldu zare... Badituzu hemen aspaldi zu ikusi nahituak!

KANPERO: Ha, gazte... Hi haiz, bi berrietarik bat... Non duk bestea! (*Emeki mintzo da... Eskuara pixka bat arroztua du*)

BENAT: Ba, ni Agerrekoa naiz... Etxebestekoa Etxegarai baitan da... Urte mugako afaria baitute...

KANPERO: Hala duk, hala duk... Boozak, gure nagusia duk Booza, esana zaitaian bi shepherd (*prononzia chepeurd*), bi artzain bazirela etortzekoak hunarat... Ordu onean heldu zarete... Sheepman, gizon batek baditik bortz mila ardi zuen gomendio... Bi mila eta erdi, bakotxak izanen dituzue, Chewer-Lake-ko mendian alarazteko... Bakotxak zuen ardiak zain, eta gauaz elgarretarat bil.

HOTELERO: Wisky?

KANPERO: Ez... Eskerrak! Segido Etxegarai hotelera goatza...

BENAT: Noiz izanen dugu lana haste?

KANPERO: Bihar berean etorriko zarete nerekin... Orai bildots gehienak salduak ditiagu... Ardiak motz, marroak eman, karnizeroari azken saltzeak egin, eta libro izanen zarete mendirat... Hogo bat egun izango dituzue beherean egoiteko, hemengo buru beltzen, zakurrekin eta, gobernatzen ikasi artio. (*Xutitzen dira*)

BENAT: Bildotsak saldu dituzuela?... Ardiak zertarik egiten dituzue?

KANPERO: Bildotsen hazkuntza, Nevada-n egiten ditek... Handik erosten ditiagu ardiak. Ikasiko duk ba orai hemengo modua... Bueno... Hator nerekin... Agur, hotelero... Bihar artio!

HOTELERO: Bai, Bixente, bai! Ausarta tzarra!... Nere nahiz, kanperoak treina huts egin duela!... Nahi nikek jakin nork argitzen dituen hola, orai hunarat heldu diren gazteak!

OIHALA



HIRUGARREN GERTALDIA

Joka-lekua:

Mendian argi zirrinta, kanpo bat... Ohe, arma, su-toki, nahi bada belazko etxola eta hola. Pantxok, hastetik buru, boza grinatsu, minbera du... Biek bizarra larri lute.

I

PANTXO, BENAT

PANTXO: (*Obean erdi etzanik*) Atzo arratsean, ez bahintz jin, zer bilakatua nintzen ikusterat, er, huen eni bertze bisita baten egiteko lanik ukanen. (*Edaten du bidun batetik*)

BENAT: (*Lurreko suan, kafea berotzen ari*) Zer egingo huen?... Hire buruaz, fin gaixto?

PANTXO: Arrunt etsitua ninduan... Zenbait lerro banitian izkiriatuak etxe-koer. Papera hor diat oraino portofullean!

BENAT: Jes!... Hoin gazte, hola etsitua!

PANTXO: Ba... Herenegun, hogoita hamar ardi falta utzi nitian, dakikan bezala. Atzo, egun guzia, heien ondotik ibili-eta, bat ez nezakela harrapa ikusi nuelarik, burua galdua nian.

BENAT: Lau, bortz galtzea, egun batzuz, gertatzen dena duk hemen... Bainan, hogoita hamar soberaxko duk.

PANTXO: Zer behar zioiat, zer erran kanperoari?... Zer bilakatu direla ene ardiak? (*Edaten du*) Eritasunez hil direla erraiteko, hilik ez bizirik, ez diat frogatzat... Basa alimalek, kujotek edo hartzek eraman dituztela ere erraiteko, hogoita hamar soberaxko duk, bereziki arrastorik gabe... Ha, ene bizia!... Abantxu bi urte badik hemen girela mendian, basak bezala bizi, eta sos bat, aditzen duk, sos bat ez diat oraino bazterrera emanik.

BENAT: Irabazi egin duk ba... Bainan beiratzan ez dakik.

PANTXO: Jada, bizpahiru aldiz, mutilgotik kanpo abantxu ezarri nik kanperoak, oraikoan ez diat eskaporik.

BENAT: Beldurtzeko duk... Bera hemen izanen duk ixtantean!

PANTXO: Zer behar zioiat erran?

BENAT: To... nik ez zakiat!

PANTXO: Ha... Ene burua garbitu banu bederen atzo arratsean! (*Edaten du*)

BENAT: Utz-atzik holako zozokeriak bere gisa... Eta, gutixago edan-zak... Gau guzia hor hago hire edari horri lotua... Ez hau horrek onduko!

PANTXO: (*Kexu*) Errak! Nik nahi badut edan, ez nauk hik debekatuko!... Enetik ari nauk, ez hiretik!

BENAT: (*Kexu hau ere*) Errak, Pantxo, edak nahi baduk, bainan zozokeria guti ibil-zak gero enekin!... Gau osoa airean nauk, hiregatik eta askitsu badiat. (*Kalapitan lotzen dira*)

PANTXO: Hire faltak dituk denak... Hire falta duk, ardiak eskastu bazaizkit!...

BENAT: Nolaz ene falta?

PANTXO: Zerendako ez dituk zaindu, ni behera jautsia ninduan denboran!

BENAT: Hire ardiak beti zaindu dauzkiat eta zainduko ere, beheiti joaiten bahiz beharrez, bainan ez beheiti joaiten bahiz plazerrez.

PANTXO: Hik, zer dakik ni zertarat joaitekoa ninduan beheiti, oraiko aldian?

BENAT: Ez zakala uka... Berdin argitua nauk leku seguretik: Neska tzar bat esperantza huen hire «roulotterat», eta hari buruz jautsi hiz... Ardiak bakarrik utzi dituk, eta anartean barreatu zauzkik... Hanbat gaixto hiretzat...

PANTXO: Ez haiz hi gehiago adixkide bat!

BENAT: Errak, hi eta ni ere, noiztenka jautsi izan gituk, bi hiru egunen-tzat hagin bat jalitzeko edo bertze holako afera seriosez. Orduan, beti elgar lagundu diagu, batek bertzearen artalde zainduz... ez duka hori hola?

PANTXO: Zerendako ez dautak zerbitzu bera egin, oraiko aldian?

BENAT: Oraiko aldian, ez... Ez badakik zerendako? Zeren eta, nahi baitut izan laguntzaile, ez baitut nahi izan hire ibilpide makurren tapagailu.

PANTXO: (*Edaten du*) Hik, ene ibilpidetan, ez duk deus ikustekorik!

BENAT: Ez hadila beraz eni pleini, dirurik ez baduk baztertzen... eta ekarak edari hori hunarat... Aski baduk edanik!

PANTXO: Errak, manatuko duk gero hire buruari, eta ez eni.

BENAT: Ekarrak hori hunarat! (*Bidona kendu nahi dio*)

PANTXO: Ez... Ez duk ukanen.



BENAT: Beharko eman! (*Pixka bat batozkatuz, kentzen dio*) Lehenago zainak eri ditukala-eta, ez nauk ero zain hemen egongo!

PANTXO: Kanibeta sartzen daiat gero ez badautak edaterat emaiten!

BENAT: Bakea emak!

PANTXO: Ikusiko duk harma hartzen badut!

BENAT: On huke pixka bat pentsatzen bahu, ixtantean kanperoa hemen izanen baituk, zer erranen diokan hire ardiez... Engoitik, batzuz ala bertzez jakintsun egina bide duk hemen gertatuez.

PANTXO: Ba, ni salatzeke hobeak dituk ba, hemengo inguruko artzain ustelak, eni ebatsi ardien itzultzeko baino!

BENAT: Zer froga duk ardiak ebatsi dauzkitela?

PANTXO: Segur nauk, eni eskastu ardiak, hil-eta jaten ari direla!

BENAT: Ho, hori hemengo legea duk... Ardi galdua, harrapatzailearen duk... Hik eta nik ere, ardi errebelatuak hiltzen ditiagu jateko... Hori ez duk ardien ebastea.

PANTXO: (*Nigarrez*) Ho, ene ama gaixoa... Ez nuzu ikusten! (*Ixtant bat ixilik*)

BENAT: (*Eztiago mintzo*) To, har-zak kafe xorta bat beroa... Hunek on eginen dauk!... Mendien kasko zuriak argitzen hasiak dituk... Hire eta ene ardier behako bat behar zioiteiat eman... Gain hartako basa perrexilarekin hain dituk erotuak!... Beherean baino goizago ernaltzen dituk! (*Jalitzen da*)

PANTXO: (*Bakarrik... kafea edanez*) Ha, zer bizia!... Bakarrik!... Begien aintzinean beti mendi bortitz basa... Ardiak, bi zakur eta asto bat lagun... Sekulan ez norbaiten ele goxo bat... Izan larruraino bustia, eri sukarretan, edo iguzkiez kixkalia, nehor ez urrikalduko denik... Ez igande, ez astelehenik... Bakarra denetako: jateko, garbitasun, jostura egite... Beti gauza bera!... Zertarat jin naiz ni hunarat?... Zer zozokeria!... Ha, Euskal Herria! Ene herria!... Ene etxea! (*Erdi etzanik, goxoki kantatzen du*)

Sor-lekua utziz geroz
ondikotz hala beharrez...

Ha zer kanta!... Nola bihotza jotzen duen!

Oroit hadi, bai xoria,
Herri maiteko berriez,
Nere aitaz, nere amaz,
Nigarrez han nik utziez,

Mintza hakit haurridez eta
Mintza lagun on hekiez,
Mintza nehor ahantzi gabe
Maite nituen guziez.

Ha, balakite han ni zer sentimendutan nagon hemen!... Zertarat jin bainaiz ere hunat! Zer erokeria!... Atzo arratsean, ardi galduen ondotik, egun osoa ibili-eta, lehertua, kanporat itzuli naizelarik, ardirik gabe, ha, arrunt burua nahasi zaut... Fin gaixto egiterat deliberatua nintzen... Azken letra hor dut oraino!... Oroitzeko izanen baitut:

«Etxeko maiteak; etsiduraz dut fin gaixto egin... Badakit gaizki egiten dudala, bainan ahale naiz bizitzeko... Ez penarik har... Ez dadiela gazterik jin hunat... Ez dadiela!... Ha, aita entzun banul!»

BENAT: (*Sartuz*) Gure ardiak oraino multzo multzoan dituk... Haatik, ez luzakotz. Badiat uste kanperoa heldu den. Ez urrun, astoaren urratsak entzun ditiat beti.

PANTXO: (*Asaldatua*) Kanperoa!... He, kanperoa!

BENAT: Ba, nik uste!... Haren tenora duk hau!

PANTXO: Ho, ho, ho!... Nik, zer behar zioiat erran?

BENAT: To... ez zakiat nik, egia hoberenik... Berdin denetaz argitua bide duk... Ez duk lehen aldia ardiak galtzen direla mendi haue-tan!

PANTXO: Xahu nuk!... Errak, ene alde mintzatuko hiza?

BENAT: Ez haut zikinduko... Salba ahala salba, hire alde ariko nauk... Ez ditiat beharrenean ene adixkideak ukatzen.

PANTXO: Uste duka badakiela beheiti izan nizala, ardiak berak utzirik?

BENAT: Ez zakala dudarik egin, sahetsetik ontsa argiturik jinen dela!

PANTXO: Ho, ho, ho... (*Ixtant bat ixilik dago, eskuak bisaia tapatuz*) Ekarrak edaterat!

BENAT: Bakea emak... Baduk aski edanik... Eta, ez baduk hobeki kasu emaiten, edanak galduko hau.

PANTXO: (*Koskatua*) Ez baduk eman nahi, nihaurek hartuko diat gero! (*Xutitzen da*)

BENAT: So-egizak, untzi hori hor utz-ak!

PANTXO: Egarri niok!

BENAT: Hor duk itur-hotza hurbill!

PANTXO: (*Oldartuz*) Ez nezakela kexaraz gero! Nik hortarik nahi diat!

BENAT: Ez duk huntarik edanen!



PANTXO: (*Errabian, hurbilduz*) Zer behar duk?... Hik manatu nik noiz edan? He, hik?

BENAT: (*Lepotik hartuz*) So egizak!... Bi zaflako ez badituk hartu nahi, hago hire tokian geldirik!

II

KANPERO, BENAT, PANTXO

KANPERO: (*Agertuz*) Zer da!... Zer da!

BENAT: (*Berexen dire*) Ha, hemen zira, kanpero!... Mutiko hau da puxka bat ahuldual!

KANPERO: Ha! Zer hau!... Mendiko minak hartu hi ere? Ez haiz lehen!... Bakarrik gain hauetan bizitzeko, gogo bihotzak fermu behar ditik... Chewer-Lakeko mendi hau, ez duk gero Irauko edo Kurkulako bortua.

BENAT: Ba, nahigabeak ere izan ditu-eta, kuraia galdua du!

KANPERO: Jakinak titiat xehetasunak!... Kuraia galdu duela... Eta, ardi multzo bat ere ba... Ez dituk, dudarik gabe, berritz hatze-man?

PANTXO: Ez!

KANPERO: Boozarekin egon nauk!... Hire ordaina hor diat nerekin... Hire puskak har-zkik eta karrea astoaren gainean hotelerat itzuliko haugu... Hilabete hau osorik pagatua izanen zauk!... Gero, hire bizia apailatuko duk ahal dukan bezala. (*Pantxok, trixteki burua behekitzen du*)

BENAT: Ez duzuia oraino, pixka bat gehiago, hemen utzi nahi?... Azken entsegu baten egiterat!...

KANPERO: Ez... Artalde a beraz utzirik urruntzen den artzaina, ez duk artzaina. Eta ez dik lehen aldia, ardiak, kasu eman eskasian, errebelatzen dituela!

PANTXO: (*Bizi-bizja*) Hartzak edo kujotek jokatu badituzte, nik zer kulpa dut?

KANPERO: Beheretan, pinotegi eta elorri zurien artean, ez duk beti errex ardi zaintzea eta biltzea!... Bainan gain hauetan, urrun bixtatzen ahal dituk... Hemen ez duk arrazoinik hoinbertze betan errebelatzeko!

III

INDIANO, KANPERO, BENAT, PANTXO

INDIANO: Good morning! (*Astoa deskargatzen ari da... Errepusta ematen diote bitz berez*)

KANPERO: To, horra ardi gatz!... Jatekoa ere hor duzue bientzat... Aste batena... Bere lana aski diok erakustea huni!...

BENAT: Zer dautazu?... Indiano hori emaiten laguntzat?

KANPERO: Ba... Ez diagu, mementokotz, bertze artzainik esku-pean! Ez duk gizon gaixtoa!... Haatik, kasu eman behar diok pixka bat... Horren makurra: zurruta dik soberaxko maite... Ari haiz pixka bat hemengo mintzairez?

BENAT: Egin-ahalak egiten ditut trebatzeko!

KANPERO: Ez zakiat aise konpreniko duzuen elkar!... Horrek ere bere mintzaira badik, eta hemengo guti konprenitzen dik!... Agian, lagun fermua gertatuko zauk!...

BENAT: Bon...

KANPERO: (*Pantxori*) Hire ohea bil-zak eta karga... Indianoak berea heda dezan... (*Pantxo eta Indianoa ari dira karga eta deskarga*)

BENAT: Pantxok hatzemanen ahal du lana behere hetan?

KANPERO: Agian ba!... Hori ez duk nere egitekoa.

BENAT: Ez diozu hemengotz fama txarrik emanen?

KANPERO: Ez... Bertzeentzat bezala, eriz jautsia dela menditik, erranen diat, eta nahi badu, ageria ere emango zioiat, bere artzain lana ondo egin duela! (*Ixtant bat ixilik, okupatuak daude*)

BENAT: Zerbait bero hartuko duzuia, urrundu aintzin?

KANPERO: Ez... Segidan behar diat itzuli... Egun, goiz iguzkiak berotuko dik... Zerua urdindu baino lehenago nahi nikek itzalean sartu! (*Pantxori*) Bon... Kargatu dituk denak, fitsik ahantzi gabe?

PANTXO: Ustez ba!... (*Jalitzen da*)

KANPERO: (*Benati, apaletik*) To, gure neska horrek, potreta ttiki hau hiri emateko esan dautak!... Hitz bat baduk barnean... Bertzalde, postaz etorri dituk bi letra... To-itzik. (*Gorago*) Bon... Goazen aurrera! Zenbait egunak artio, Benat... (*Indianoari*) Good bye!



PANTXO: (*Benati, eskua luzaŕ tinkatuŕ, bihotŕ barnetik*) Benat... Milesker...

Barka zadazkik gaizki erabiliak!

BENAT: Xantza on, Pantxo!... Goberna hadi ontsa!

PANTXO: (*Indianoari*) Good bye! (*Indianoak errepostu bera. Biak urruntzen dira*)

BENAT: Berritz ere lagun berria!... Nor eta zer ote da gizon hau!... Lehenago guti lagun, eta orai bat ere ez!... Ha, zer biziaren segida!... Hemen irabaziak, irabaziak direla gero! Zakur bati ez baita desiratzeko hemengo bizia! Ean zer dion Kanpero alabak. (*Paketa idekitzen du eta karta irakurtzen*) «Lepoko hau, nihaurek trikotatu dautzut, zure hogoi ta bost urteren ohoretan... Bihotz bihotzez zurekin nago!... Benita!» To... Terexaren bi letra... Ha, zer plazerra, herriko berrien errezebitzea, toki urrun hautan! (*Irakurtzen hasten da*)

INDIANO: (*Irriz*) Good, good letter!...

BENAT: Yes, yes... Good!... Ba, ba, gaixo Terexa... Jainkoaren ondotik, horrek nu gehienik sustengatzen, hemengo oren hitsetan! (*Letra irakurtzen du aintzina*)

OIIHALA

LAUGARREN GERTALDIA

Joka-lekua:

Bigarren gertaldiko bera.

I

ANTON, HOTELERO, GABRIELA

ANTON: (*Kalapitan hoteleroarekin*) Kopeta behar duzu gero! Eni otoa erosi, hilabetea pagatzeko. Lehen hilabetea pagatu dautazu, eta otoa saldu duzu! Eta geroztik, ez dautazu pilik eman!

HOTELERO: Pagatuko daiat. Har-zak pazientzia pixka bat!

ANTON: Zer, pazientzia hartu? Badu sei hilabete pazientzia hartzen dudala! Oraĩ aski badut harturik. Hasteko, fama txarrak ditu zure hotelak... Errekarat ari dela... Edo ekar-azu zor dautazuna, edo sesia egiten dautzut!

HOTELERO: Nork erran dauk errekarat ari naizela? Gezurra duk hori!

ANTON: Ez dakit gezurra den hori!... Maiz barre hau hutsa ikusten dut segurik... Eta, ez zituzte Pantxo eta haren iduriko lagunek bizi araziko!

HOTELERO: Mutikoa, konpreni-zak!... Alaba, hoinbertze denboraz klinikan egon zaitak! Horrentzat behar nian dirua... Hortako diat otoa saldu!

ANTON: Nik ez dut fits ikustekorik zure familiako ixtoriotan! Nik ene hartzekotan nahi dut sartu!

HOTELERO: Pagatzeko astia utz-atak! Ez nauk deus gabe. Badiat bankoan diru pixka bat!

ANTON: Zure bankoko diruak ez nau ni ontzen! Hasteko ez dut sinesten, han dirurik baduzula!

HOTELERO: Zer, ez dudala bankoan dirurik? Nahi duk nerekin bankoraino etorri?

ANTON: Ba eta segidan nahi baduzu!

HOTELERO: (*Koleran, ŕerbitŕatzeko tauliera kenduŕ*) Debru barne idor prestatua!... Boon... Ez diat bankorat laguntzarik behar... Bainan haugi hunarat nik bankoko itzulia egin orduko, eta, dena ez bada, parte on bat bederen emanen deat.



ANTON: Ontsa da!... Ikusiko duzu ixtantean! Eta, ez baduzu zure hitza beirutzen, jakin-azu behar diren ibilpideak ibiliko ditudala, onez onean ematen ez duzuna, bortxaz eman beharko baituzul! (*Jalitzzen da*)

HOTELERO: (*Oihu*) Gabriela! O, Gabriela!

GABRIELA: (*Agertuz*) Zer da, aita?

HOTELERO: Zerbitza-azu hemen, ni berritz etorri artio!

GABRIELA: Urrun zoazi!

HOTELERO: Ez... bankoraino... Behar ditut ama zenaren joiak estimarazi eta hek berme, dirua behar dut ateral!

GABRIELA: Ho... Ama zenaren oroitzapenak!

HOTELERO: Zer nahi duzu! Bortxatuak gare! (*Jalitzzen da*) (*Ixtant bat baka-rrik*)

II

BENAT, GABRIELA, KANPERO

BENAT ETA KANPERO: (*Sartuz*) Agur, Gabriela!

GABRIELA: Agur, jaunak!

KANPERO: Wisky bana! (*Ixtant bat ixilik... Gabriela jalitzzen da, zerbitzatu eta*) Beraz, berritz bahoa Euskal Herrirat!

BENAT: Ba... Joaiten naiz... Etzi dut aviona.

KANPERO: Zenbat urte hemen haizela?

BENAT: Sei urte.

KANPERO: Serioski lanean ari izan haiz... Ondo irabazi duk. Jakin izan duk guardiatzen! Hi bezalakoentzat, Amerikak Amerika dituk! Eta nola ikusten duk hire biziaren segida?

BENAT: Ho, han ikusiko zer molde kausituko dudan!

KANPERO: Beha-zak, Benat... Nik ondo ezagutzen eta hainitz estimatzen haut! Alaba hor diat... Hau bakarra diagu. Nahi baduk harekin apailatu hire bizia, nere ontasunak eta kanperogoa, hiretzat dituk. Ikusak hihaurek!

BENAT: Milesker... Bainan lehenik, Euskal Herrirat joango dut, handik berritz itzuli-eta, itzultzen baniz, zuk erranez oroituko niz! Mementokotz ene geroaz ez dakit deus segurrik! Euskal Herrirat-eta, han ikusiko dut zer egin!

KANPERO: Hire geroaren jabe haiz... Eginazkik hire pentsaketak... Bada-kik Benitak nola hitaz burua hartua duen... Agian, ondo aterako zarete, ba hi eta ba hura... Bon, esanak esan... Gure artean dagotzila. Eta agur! (*Jalitzzen da... Gabriela agertzen ere baita*)

BENAT: Ba, agur... (*Gabrielari*) Aita nun duzu?

GABRIELA: Ez da urrun, ez!

BENAT: Eta Pantxo, beti hemen mutil dago?

GABRIELA: Pantxo ez da gehiago hemen mutil, bainan hemen hartzen du pentxionea.

BENAT: Zer lanetarik bizi da?

GABRIELA: Ho! Ahal duen bezala! Mementoan, zapeta ziratzetik... Ez duzu ikusi pasatzean? Hor du here ttattola, karrika buruan!

BENAT: Gizagaizoa!... Hortaratua dea? Uste nuen beti hemen mutil zela!

GABRIELA: Ez... Lehenik baxera garbitzeko eta lan larrietako hartu ginuen. Gero eritu zen. Luzaz egon zen ospitalean... Orai ez du osagarri haundirik. Eta guk ere, ez ginuen gehiago harentzat lanik. Eta hor dago miserable!

BENAT: Gaizoa! Zer zortea!

GABRIELA: Zer nahi duzu!

III

BENITA, BENAT

BENITA: (*Sartzen da, arrunt asaldata... Gabriela jalitzzen da*) Agur, Benat!

BENAT: Te! Agur, Benita! Zu hemen?

BENITA: Ba, zure ondotik nabil...

BENAT: Zer duzu? Badakizu, dudarik gabe, atzo menditik jautsia naizela eta etzi aviona hartzen dudala!

BENITA: (*Erdi nigarrez*) Ez zaitela hemendik aldara! Ez zazula avionik har!

BENAT: Zerendako ez?

BENITA: Zaude hemen! Ez ote gare biak bizitzen ahal? Zaude hemen.

BENAT: Gibelerat itzuliko naiz... Etxekoen ikusterat joan behar dut!

BENITA: Ez, ez zira gibelerat etorriko! Badakit! Ez zira gehiago etorriko!

BENAT: Zer dakizu zuk?



BENITA: Ha... Badakit, norbaiten letrak beti xuxen errezebitzen dituzula!
Nik zuri bialdueri, ez zinuen arraposturik ere egiten! Eta hari, abantxu aste guziez!

BENAT: Ez dautzut lehen ere deus hitzeman! Ez deusetan enganatu!

BENITA: Ho, nik zu zaitut maite... Hilen naiz bazterrerat uzten banauzu!

BENAT: Zaude ixilik! Denborak denak kontsolatzen ditu!

BENITA: Bederen, zurekin Europarat ereman nezazu... Ale... Heldu naiz zurekin!

BENAT: Ez zazula burua gal! Zaude hemen deskantsuan! Eta, nork daki?
Beharbada, hiru hilabete gabe, berritz hemen ikusiko nuzu!

BENITA: Ba, aise! Zuk esaten bai!

BENAT: Zendako ez?

BENITA: Egin-azu beraz juramentu betikotz etorriko zarela! Ale! Juramentu egin-azul

BENAT: Ho... Hori sobera galdatzen dautazu!

BENITA: (*Nigarrez*) Ba... Ikusten dut... Fini, fini zera neretzat.

BENAT: Benita, norbait heldu da!

BENITA: Bueno... Banoa... Berritz ikusiko zaitut. (*Jalitzen da*)

IV

ANTON, BENAT, HOTELERO

ANTON: (*Sartuz gurutzatzen du Benita*) Agur, Benita! (*Benitak ez dio erreposturik ematen*) (*Benateri*) To, hor hiza? Zer zian, to, holako sapan, neska horrek?

BENAT: Bihotza pixka bat hautsi zio, ikusiz hemendik urruntzen nintzela!

ANTON: To, xantza duk!

BENAT: Nolaz diat xantza?

ANTON: Holako alaba on baten etxean sartuko bai hiz. Badie gero horiek ontasan iguzkitan!

BENAT: Bizkitartean ez zioiat onartu!

ANTON: Zer arrazoinenez?

BENAT: Batetik, gorapen eta beherapen sobera aise dituen neska bat baituk hori.

ANTON: Ba... Hemengo neska gehienena duk hori! Han baino beroago eta basago dituk gero hemen!

BENAT: Bertzetik, ez nuk diruarekin ezkonduko, bainan bihotzarekin!

ANTON: Bihotzarekin? Zer, oraino hortan hiza? Uste balin baduk hire bihotzari kasu emanen duten neskatzek, hirekin ezkontzeko! Dirua hainitz izan-zak, eta bihotz erakusle frango izanen duk! Dirua die gu baitan xerkatzen, eta ez bihotza!

BENAT: Baduk, hetan ere orotarik!

ANTON: Sinets nezak. Balin baduk ahala neskatzak dirudun batekin ezkontzeko, hura har-zak emaztetzat lehenbailehen... Bihotz eta amodiozko ixtorio pilixta horiek, utz-aitzik bere gisa haurrendako. Moltsa jori baduk, nahi ditukan bihotz guziak berdin hiretako dituk. Orai eta gero ere!

BENAT: Ez diat bizi berduratu bati lotu gogo... Emazte bat, bakea familiar, lana, Euskal Herriko goxotasuna, horietan bizitzeko xedea diat.

ANTON: Ni ez nuk batere emazte hartzeaz grñatua! Berdin, gero ere, dotzenezan hamairu hor izanen ditiat. Biziaz nahi diat lehenik ontsa baliatu... Eta anartean, ez diat, emazterik sahetsean nahi ere nardagailu!

BENAT: Bakotzak bere gustu! Badiat uste haatik, hire haurreko katiximatik, pixka bat baztertua haizen!

ANTON: Puh... Apezen erraneri behar baginikek jarraiki, baginikek to zer egin!... Hasteko hemen baduk asko erlijione mota... Habil, to, hi jakiterat, zein den hoberena!

BENAT: Dugulakoaz eta dugunaz bederen, segur behar ginikek. (*Ixtant bat ixilik daude*)

ANTON: Pantxo ikusia duka?

BENAT: Ez... Zer diok hartaz?

ANTON: Fitsik ez duk hura... Eskale herresta bat bilakatua duk.

BENAT: Poxi bat lagunduz, errekatik jalitzen ahal baginu!

ANTON: Hura jali den heinetik? Ez dik itxurarik.

HOTELERO: (*Agertuz*) To, hor haiz eta, hi ere Benat! Zer haiz? Itsaso bertzaldara abian?

BENAT: Ba... Hala naiz!

HOTELERO: Ez haiz hainitzik agertu hunarat, mendirat iganez gero! Zer hintzan? Hire moltsa zain egoiten?

BENAT: Ohoinak sendi direlarik, guardian egoitea hobel!

HOTELERO: Engoitik, hoin xuhurki biziz, dolar meta pixkorra ere bildu bide duk hik! Pantxori pixka hat pasatzen ahal diok. Hirekin etorria, ez baituk hire hein berean!



BENAT: Hein hortarat jausten lagundu dutenek, berritz altxatzen lagunduko ahal dute!

HOTELERO: Zer naukak? Ni hobendun, horren miseriaz?

BENAT: Ez du beti iduri, hemengo mutilogotik hainitzik ondu dela!

HOTELERO: Hanbat gaixto beretzat! Aski zian ontsa gobernatzea! *(Antoni)* Anton, heldu haiz gibleko salaraino! Behar ditiagu bi solas erabili. *(Anton jalitzen da)*

BENAT: *(Bakarrik)* Zer den haatik bizia! Duela sei urte, barne huntan berean ginen, jin berriak, hiru eskualdun gazte, hein bertsukoak. Nola biziak elgarretarik urrundu gaituen! Alta, sei urte, ez dira ba mende bat!

V

PANTXO, BENAT, ANTON

(Pantxo sartzen da, bere keza bizkarrean, ile bizarrak luze, errumes bezti... Sartzen da... Behin, Benatek ez du ezagutzen ere)

BENAT: *(Azkenean ezaguturik)* Jes! Hi! Hi, ez hiza Pantxo?

PANTXO: Benat!

BENAT: Agur, Pantxo gaizoa! Jes, jes, jes! Ez hintudan ezagutzen ere! Hi, hi, Etxebesteko semea, hortaratua?

PANTXO: *(Burua behekituz)* Ba, ahalge nauk nihaur!

BENAT: Bainen mutikoa, nolaz haiz holakatu?

PANTXO: Eritasunak... Mendikotz ez on... Hirian, nehon ezin harrapa ene heineko lanik! Horra to!

BENAT: Mutikoa, behar duk bertze zerbaitetarat entseatu! Hori ez duk ofizio bat! Oraino gazte haiz!

PANTXO: Sobera behera eroria nauk, berritz jaltzeko!

BENAT: Ez duk nehor hain behera erori ezin baituke jali... Jaltzeko nahia behar dik!

PANTXO: Enea engoitik egina duk!

BENAT: Gaizo Pantxo! To, ni etxerat abian nuk... Etzi hartzen diat avion! Gabriela, ekatzu bi whisky! Gaizo hi! Eta, hire familian bazakie nola haizen?

PANTXO: Nekez! Eta hik otoi ez zakela deus sala!

BENAT: Bainen... hola ez hintezke egon! So egizak... Ni partitzen bainuk, ene arropetarik emanen dauzkiat, poxi bat bezti hadin... Dirua ere utziko deat... Bezti hadi, eta bertze lan zerbaitetarat entsea hadi!

PANTXO: *(Buruarekin ez eginez)* Orai, berantegi duk!

ANTON: *(Sartuz, harroki mintzo da Pantxori)* To, hor hiza, hi ere buhamia! Ontsa jina hiz... *(Jartzen da eta zangoa luzatzen dako)* Goizean zapetak ziratu gabe, jali bainuk etxetik, to, zira-azkidak orai! Hola ikusiko dik Benatek ere, zoin abilki pratikatzen dukan hire ofizioa! To, whisky turnada on bat irabaziko duk! *(Pantxo xuttitzen da, bere lanari buruz)*

BENAT: *(Idorki)* Pantxo hago hire tokian!

ANTON: *(Irri larri batekin)* Zer! Utz-ak zonbait soson irabazterat... Badik beharra!

BENAT: *(Serioski)* Errak, Anton! Badakika zer ari hizan? Ez hiza ahalge holako lan baten galdatzeko adixkide eta herritar bati?

ANTON: Zer kalte egiten zioiat? Irabazia emaiten zioiat!

BENAT: Batere gizon bahaiz, gisa hortako irabaziak emanen dituk nahi dukaneri, bainen ez huni.

ANTON: Zer haiz hi ere?... Herresten lauzkan abiatua? Lehenagoko apostolua haiz ba orai ere!

BENAT: Nahi baduk... hura bera nuk... Eta nizan bezalako nahiago diat, diruz hanpatu moltsa idor bat izan baino!

ANTON: *(Xutitzen da, koskatua)* Eta, ez zakiat zueri zendako kasurik egiten dudan ere! Nardatzen nauzue azkenean! Ez zukek gehiago mintza ere! Iduri eta zuen beharretan naizen! *(Jalitzen dela)* Eta hemendik harat, bakea emanen duzue eni!

BENAT: Habil nahi baduk betikotz! Ez haiz berdin gure arterat, guk galdegirik jina! *(Bakarrik)* Ze debru da holako! Ez dela gure beharrean... Hori, zerbait gutarik nahi duelarik da, beraz, bakarrik, gure adixkide nahi! Eta guk, hortarik zerbait behar badugu, orduan ez gaitu ezagutzen ere! Beretzat nahi lituzken gisan, nahi ditugu, guk ere guretzat, adixkideak! Egun txarretan ere, leial egonen direnak, eta ez bakarrik haizea eskualde dugun egunetan. *(Ixilik ixiant bat)* *(Pantxori)* Hik, Pantxo, behar huke hire gogo hori poxi bat sendatu! Hik dukan eritasuna, ez baituk gehienik gorputzean, bainen izipirituan.

PANTXO: *(Trixteki)* Orai berantegi duk!



BENAT: Nolaz berantegi! Jalitzeko nahikundea pitzak... Oldar bat egi-zak.

PANTXO: Orai berantegi duk!

BENAT: To, Pantxo, pena egiten dautak! Nahi diat sakrifizio bat egin hire-tzat... Nahi duka enekin jin? Piaia pagatzen daiat!

PANTXO: (*Gogoetatua apur bat egonik*) Ez!

BENAT: Zendako ez?

PANTXO: (*Trixteki*) Ez!

BENAT: To... Nik ez zakiat ba zer egin gehiago hire onetan!... Sarri haugi Etxegarai baitarat... Elgarrekin afalduko diagu! Emanen daukiat hitzemanak eta erabiliko ditiagu azken solasak... Sarri artio! (*Jalitzen da*)

PANTXO: Ba... Sarri artio! (*Bakarrik... Whisky ondarra edaten du... Ixtant bat, gogoetatua dago... Bat batean sepan nigarrez lotzen da*)

OIHALA

BORTZGARREN GERTALDIA

Joka-lekua:

Lehen gertaldiko hura bera.

I

BENAT, TEREXA

BENAT: Sei urte egunez egun, hemen berean ginela!

TEREXA: Pesta hau bera zen, orduan ere! Haatik, egungo egunak ordukoak ez bezalako begitartea du guretzat!

BENAT: Zuk errazu! Orduan gure arbola, landatu berri... Eta orai, arbola lilitan. (*Apur bat ixilik*)

TEREXA: Luze izan dira sei arte, zutarik urrun... Halere, zure letreri esker, beti zutarik hurbil bizi izan naiz!

BENAT: Nik ere aitor dut, zure letrek haintz lagundu eta beiratu nautela! Eta, badakizu, otoitz hura! Beti erran dut gero!

TEREXA: Nik ere ba zuretzat! (*Apur bat ixilik*)

BENAT: Eta hemen nehork badakia, gure arteko atxikimendua?

TEREXA: Ez! Nehork!

BENAT: Oas! Oroit zirea, Karmenen egun hartako sarkidea? Izkiriatu zautan gero! Bainan, ez diot behin ere erreposturik eman!

TEREXA: Ba, gaixoa, oraino hor dago errabian ezkondu nahia! (*Apur bat ixilik*)

BENAT: Ha, zer goxotasuna, berritz ere herrian aurkitzea, urrun tokietan ibili ondoan! Iduritzen zaut, ostatu huntan ene bizia, zurekin zeru bat izanen dela.

TEREXA: Enezat ere hala-hala izanen da.

II

MENTABERRI, BENAT,
LEON, JOSEPH, TEREXA

MENTABERRI: (*Agertuz*) To, hor hiza? Hi ikusi beharrez nindabilaian. Ontsa hiza? Noiz jina hiz?



BENAT: Herenegun arratsean jina... Eta kontent jinik.

MENTABERRI: Nola harrapatu dituk herria eta herrikoak, hango hedaduren ondotik?

BENAT: Oraino, zozotua bezala naiz... Ezin sinetsia dut hemen naizela.

MENTABERRI: Oroit nuk nihauren lehen itzultzeaz! Zer loria! Zer atsegin!

BENAT: Ba... Eni ere, zenbait aldiz jin zauzkit pertsu zaharrak gogorat:
(*Kantuz*)

Herri alde guzietan

Toki onak badira,

Bainan bihotzak dio:

Zoaz Euskal Herrirat!

MENTABERRI ETA BENAT: (*Betan doblatzén dute*)

Bainan bihotzak dio:

Zoaz Euskal Herrirat.

(*Bi gazte, Leon eta Joseph, agertzen dira*)

MENTABERRI: Eta, osagarritz ontsa hiza?

BENAT: Ba, ba... Joaitean bezen sano!

MENTABERRI: Hobe, hobe!

LEON: Agur, Benat!

BENAT: Agur! Nor haut hi?

LEON: Ni Leon. Eta hau Joseph.

BENAT: Ui, ui, ui! Nola handitu zirezten! Ene bi lehen auzoak ez ditut gehiago ezagutzen... (*Eskua emaiten diote*) Zenbat urte dituzue orai?

LEON: Hogoir urte!

BENAT: Nola jendea kanbiatzen den!

MENTABERRI: Ba... Adin hortan bereziki.

BENAT: Etxean ontsa zireztea denak?

LEON: Ba, ba... Denak ontsa!

BENAT: Bon, jinen nauk agur egiterat! Zer hartuko duzue? Jar zaitezte!

LEON: Pitsik. Edan berriak gira, eta buruak behar ditugu xuxen atxiki, gure kargua ontsa betetzeko egungo pestan!

BENAT: Biba zuek! Biba zuek!

MENTABERRI: (*Xapela kenduz Benati*) Ean xapel hau buruan nola zirezten? (*Entseatzen dio Leoni*) To, ez hintezke batere gaizki... Egun batez, holako bat beharko zinukete, zuek ere bainan bako txak zuena!

LEON: Nork daki ez dugun izanen!

MENTABERRI: Hau har-zazue etsenplutzat... Sei urte sakrifikatu dituk han, bainan orai, bere bizia deskantsuan iragaiten ahalko dik.

LEON: Erreusitzekotz, entseatzea balio luke... Errazu, Terexa, plaza gaineko bandera, zuen etxean galdatu behar omen da. Emanen dautazuia otoi! Behar ginuke han ezarri!

TEREXA: Ba, mutikoak ba, gogotik... Sar zaitezte! (*Hiruak jaltzen dire*)

MENTABERRI: Berritz joaitekotan jina hiza? Ala alderat?

BENAT: Ho, alderat, alderat! Badut hangotik aski!

MENTABERRI: Hirekin joanak zer bilakatu dituk?

BENAT: Anton, arrunt hangotua... Pantxo berritz trixte bat bilakatua!

MENTABERRI: Ba... Zerbait entzuna diat... Ez nuk estonutzen... Guriegi zuan, guriegi, mutiko hori, hangotz! Berririk ez zutela eta, haren ama izana zaitak, zerbait jakin nezan galdezka. Emazte hori xori-buru bat duk! Ez daitaka eskandala eman nik galdu diotala semea! Andere nahi, emazte ttula!

BENAT: Te... Ez dea hura bera, hantxet heldu?

MENTABERRI: Ba... Hura bera duk... Barnerat sartzen nuk... Nahiago diat horrekin ez gurutzatu!

BENAT: (*Bakarrik*) Hauze duk maite ez dudana! Lagunen berri txarren kondatzea! Eta guziz beren ameri!

III

KAROLINA, BENAT, MARGARITA

KAROLINA: (*Agertuz*) Agur, Benat!... Itzuli zira beraz gibelerat? Beti ontsa?

BENAT: Ba, ba, Jainkoari esker. Zu ere ba?

KAROLINA: Ba, osagarria badugu... Noiz jina zira?

BENAT: Herenegun! Ez naiz oraino nehorat alatu... Zuen etxerat jitekoa nintzen berriekin!

KAROLINA: Ez dea, gure hura gibelerat itzultzekotan?

BENAT: Ez... Oraino ez da hortarik ari!

KAROLINA: Bulta bat huntan, ez du berririk emaiten... Artzaingoa utzi eta, hotel hatean lotzen zela lanean, izkiriatu zaukun... Geroztik letrak bakanduz jin ziren... Aspaldian berritz ez dauku sekula izkiriatzan. Ontsa da dudarik gabe?

BENAT: Ba, ba. Arras ontsa da!



KAROLINA: Eta hotela bere gain hartua dua, edo zer kondizionetan da?

BENAT: Bere gain, beharbada hartuko du egun batez, ba. Mementoan irabazian bizi da!

KAROLINA: Alabainan, hasteko partzuer da usaia han, emeki emeki nausi bilakatu artio!

BENAT: Ba, hala da hango usaia.

KAROLINA: Eta, ez dautzu letrarik edo deus eman etxekotz?

BENAT: Ez du asti handirik izan, holako zerbaiti pentsatzeko ere! Doi-doia presaka elgar ikusi dugu eta!

KAROLINA: Ba, konprenitzen dut bat haren bizia... Hango hoteletan, hemengotan bezala... Gau eta egun, beti presaka... Egiten nuen ba, hortako ez zaukula izkiriartzen! Eta, aipatu dautzua bere bizia han egingo duen, edo emazte hartzerat jin gogo duen, edo zerbait?

BENAT: Erran dautzutana! Ez dugu solas funtsik ibili. Badakizu, ni menditik jausti eta, aviona laster zen. Eta, doi bat bertzerik ez gira gurutzatu.

KAROLINA: Kontent naiz holako berri onen entzuteaz Badakizu, jende gaxtoak beti baitira, gezurra nahiago dutenak kondatu, egia baino.

MARGARITA: (*Agertuz*) Ha, harrapatzen zaitut, andere Karolina... Zer zinen? Zure seme xarmant horren berri galdez jina?

KAROLINA: Ba, preseski, Margarita. Kontensko bainaiz ukan ditudan xehetasun onez!

MARGARITA: Zer da? Zapeta ziratzetik aberastu?

KAROLINA: Ba, badakit zer famak hedatu dituzun harentzat! Bainan egia bertzela da.

MARGARITA: Ene alabak ere, haren egon tokitik, ukaiten ditu gero berriak! Bai eta, haren potreta ere badu, nahi baduzu ikusi.

KAROLINA: Zer dabila? Zure alaba oraino haren ondotik?

MARGARITA: Bera haurraren aita ahal du, andere Karolina!

KAROLINA: Zure alabak ez du zentzu handirik, haren pretentziona balin badu oraino ere.

MARGARITA: Alabainan, ene alaba, buhametarik!

KAROLINA: Zuhaurek diozu!

MARGARITA: Ene alaba buhame, odolez, andere Karolina... Eta zure semea berritz buhame, ez odolez, bainan zorrez eta zorriz... Bai, andere Karolina!

KAROLINA: Holakotua balitz, ez laiteke zure alaba, hura bildu beharrez ariko!

MARGARITA: Ez, andere Karolina... Ez uste izan ene alaba, zure semearen gutizietan dela... Ez du zure semea galdatzen, bainan harenganik paperño bat, haurraren aita dela paperño ttipi bat. Paperño horrekin, haurrak Etxebeste ontasunetik ezkin bat, ho, ezkin bat bakarrik, beregan dezan. Konprenitzen duzua, andere Karolina?

KAROLINA: (*Irri mehe batekin*) Ha, ha! Ezagun duzu jende inorantetik zirela, uste baduzu paper mutur batek, holako ahalak dituela! Ha, ha, ha! Joaiten niz, ori... Irri eginarazten dautazu! Agur, Benat, eta milesker eman dauzkidatzun berri onez!

BENAT: Ba, agur, anderea!

MARGARITA: (*Benati*) Zer hango berri sakatu diok, to?

BENAT: Berri batzu, Margarita, beihalako pegarra bezala dira: Urrundik urez, hurbildu eta lurrez!

MARGARITA: «Nor niz ni» debrusa! Gu bezala lurreko laparretik izanagatik, horrek beti Pazko lili daukala bere burua, to! Apaldu beharko dik ba oraino bere andere moko hori. (*Jalitzzen da*)

IV

TEREXA, LEON, JOSEPH, BENAT

TEREXA: (*Agertuz, Joseph eta Leonekin, bandera daramakate*) Aski duzue pesta bururatu eta, berritz hunat bererat itzultzea!

LEON: Ba... Bego gure gain, eta milesker!

TEREXA: Ez da zeren! (*Bi mutikoak jalitzzen dira*)

BENAT: (*Irriz*) Irriz nago, Terex!

TEREXA: Zer dautzu, Margaritak, bere usaiako piko hetarik jali!

BENAT: Margarita eta beste, ohartzen naiz, Ameriketan edo hemen, mundua beti mundu dela!

TEREXA: Ba, jendea den tokian beti kausituko duzu jendetasuna eta haren eza. Jendetasun eskasia!... Errazu, so egizu nor heldu den!

BENAT: Nor da hori?

TEREXA: Karmen da... Bulta huntan hemen ikusten dut, itzulika dabila! Segur, zurekin mintzatu nahiz!



BENAT: Jin dadiela! Irri egin behar dugu! Enekin izan zaite, deus ez balitz bezala gure artean, deskantsuan argi dadien. (*Benatek, bizkarra Karmeni emaiten dio, alegia zapeta estekatzzen okupatua*)

V

KARMEN, TEREXA, BENAT

KARMEN: Agur, Terexa... Errazu, ene anaia ez dea hemen agertu?

TEREXA: Zure anaia? Ez... Haatik, barnean ere nintzen eta ez dut biziki so egin!

KARMEN: Oas! Ikusi behar nuen ba. (*Ez tul tipi batzuz nahi luke Benati so eginarazi. Bainan hau ez zaio itzultzen*) Beharbada jaun hunek ikusi duke?

TEREXA: Galde ozu berari!

BENAT: (*Itzultzen da alegia harritua*) Jes! Karmen!!

KARMEN: Ho, zu Benat? Zu hemen? Ez nuen hori uste zu hemen harra-patzea! (*Eskuak tinkatzzen dituzte*)

BENAT: Batare ez zira kanbiatu, Karmen... Duela sei urte bezain gazte eta fresko harrapatzen zaitut!

KARMEN: (*Harrotua, ezagun du ez dela bere buruaren jabe*) Zu ere, orduko ber bera zira! Haatik hola bezitua, nola ezagutu zu? Oas, oroit zira? Nola hemen berean ginen, zu hemendik urrundu aintzin? Ba eta nik hitza atxiki nautzun gero! Espresuki zure adreza galdeginik, bietan izkiriatu nautzun, eta zuk, ez erre-pustarik ere egin!

BENAT: Ha, gaixoa! Zer uste duzu? Kaliforniako mendietan, letrek hemen bezala kurritzen dutela? Ori, oroit naiz elur handi batzuz, negu guzia letrarik gabe egon baiginen! Fin tipi bat hartuko duzuia?

KARMEN: Ba, berdin.

BENAT: Terex, zerbitza izkigutzu bi fin! (*Terexak zerbitzatzzen ditu*)

KARMEN: Nik uste, zuk zer-nahi toki eder ikusi duzu! Izan zirea New-York-en eta San Francisco-n?

BENAT: Ba, pasatu ba!

KARMEN: Izigarriko etxe handiak omen dira hiri horietan! Karrika guziak berri berriak, eta gaitzeko eletrikaz argituak! Otoak ere inu-minia!

BENAT: Ba, bada gauza ederrik hor gaindi!

KARMEN: Han kasik presuna guziek omen dituzte beren otoak? Eta hainitzek, Buik horietarik. Egia dea?

BENAT: Ba, han oto bat ukaitea, hemen bizikleta bat ukaitea bezala da. Zure osagarriari! (*Edaten dute*)

KARMEN: Ba, zure osagarriari! Eta airekoan, ez omen da fitsik senditzen, treinean baino gehiago, eta gain behera, xeheki ikus omen ditazke lur gaineko gora behera guziak!

BENAT: Ba, salbu lanoak edo iluna direlarik!

KARMEN: Oas!... Zer xantza izan duzun haatik!... Nik uste, zer-nahi baduzu kondatzeko. Ha, zer plazerra nuken zure entzutea horien guzien kondatzen!... Zer xantza duzun hola kurriturik!... Maiz oroitzen nintzen zutaz!... Egia gero: beti, hala-ko zerbait preferentzia bainuen zuretzat, bertze hemendik joanentzat ez nuen!

BENAT: Plazer da jakitea, adixkide gordeak baditugula.

KARMEN: Gure etxerat behar zinuke jin! Aita, ez da jaltzen erromatis-mekin... Lorian litake zure entzuteaz hango ixtorioen kondatzen... Biziki maite ditu hango ixtorioak!

BENAT: Mementoan, baditut zer-nahi bisita egiteko han direnen familie-tarat... Ez naiz aise zuen etxeraino helduko!

KARMEN: Ez zira, dudarik gabe, berritz Ameriketarat itzuliko?

BENAT: Ez, ez... Ene ohantzeaz pentsatzeko adina jina dut... Eta, hemen nahi nuke kokatu.

KARMEN: Oas... Nik ere, ene geroari pentsatzeko ordu dut... Errazu, sarri balean izanen zirea?

BENAT: Beharbada, itzuli bat egingen dut.

KARMEN: Lehen dantza, ene galdatzen dautzut!... Hitzemaiten duzuia?... Errazu baietz! Nahi duzuia hitz hartzea nun elgar aurkitu-ko dugun?

BENAT: Hortaz jada hitz hartua naiz norbaitekin!

KARMEN: Norekin?

BENAT: Ene lagun beharrarekin. (*Edo ene emazte-gaiarekin*)

KARMEN: (*Basoa eskutik eskapatzen zako... Arrunt nahasten da*) Zure, zure... (*Ez daki gehiago zer erran*)

BENAT: Baa... Terexarekin... Ez zinakiena hau nuela ene lagun gaia?

KARMEN: Uf! Uf! (*Bisaia xukatzen du*)

BENAT: Zer duzu?... Ez zirea ontsa?



KARMEN: Ez! Fitsik!... Ez dakit zer gertatzen zautan!... Edaria bururat joan zaut... Ho... Joaiten naiz hemendik!... Uf! Uf! Agur... agur... (*Jalitzzen da*)

BENAT: (*Irriz*) Gaizo neska! Oroitzeko ahalgea izanen du hori, horrek!

TEREXA: (*Irriz*) Aitaren bisita, sarriko bala eta gaineratekoak sartu dazko-tzu zuk!

BENAT: Ardi sobera sarkariak noizean behinka ote mulko bat muturrerat on dute.

TEREXA: Badut uste zuretzat zuen sukarra, xistant batentzat hoztu diozun!

VI

MENTABERRI, BENAT, BATTITTA

MENTABERRI: (*Agertuz*) To... Azkenean bakarrrik utzi haute... Nindagoian luzaz emazte errezebitzen ariko hintzenez!

BENAT: Ameriketarik itzuli hainitzek, hemengoek baino, gisa hortako, lan gehiago omen dute... Hola zena zure denboran ere?

MENTABERRI: (*Irriz*) Ba, bazukek hol'hola zen!... Errak, orai jina bai hiz, pentsatzen diat ez hizala Ameriketarat joaitearen kontra mintzatuko?

BENAT: Zendako galdatzen dautazu hori?

MENTABERRI: Egia erran... Ene irabazpideengatik ere... Zonbait, Amerikaz arras hitski mintzatu izan dituk... Eta, izan ditiat hila-beteak, nehor ez baitzian gehiago harat deliberatzen.

BENAT: Zer kondatu izan dute Amerikaz?

MENTABERRI: To... Nehork nahi ez dituzten ofizio errefusetan, han Euskaldunak ar-arazten dituztela... Batzu, bortxaz, soldado ere altxatu dituztela. Badirela miseria gorrienean badaudena, etsimenduz beren burua garbitu dutenak ere... Holako, to!

BENAT: Horietan egiak ere badira, bainan gauzak ez goragotik jujatzea, alderdikaria izaita da!

MENTABERRI: Hortakotz, hi baitan kondatzen diat, gauzen haxean ezartzeko eta lan ona egiten badautak, ez haut ahantziko ene irabazietan!

BENAT: O, Mentaberri, gisa hortako aferetan, ez dut, zukanik, hartzekorik nahi!... Ez konda, nik nehor, edo berotuko dudala Ame-

riketarat, edo harat joaitetik, gibelatuko dudala!... Xehetasun galdatzaileri, xehetasun egi-egiak emanen dazkotet, gero jakinean, bakotxak hauta dezala bere bidea!

MENTABERRI: Ene ofizioa ez zauka zerbitzu on bat hainitz euskaldun gazteentzat?

BENAT: Zure ofizioa, Mentaberri jauna, batzuentzat altxagarri, eta bertzeentzat galgarri!

BATTITTA: (*Agertuz*) Agur, jaunak!

MENTABERRI ETA BENAT: Agur, Battitta!

BATTITTA: (*Benati*) Gure trixte hartaz, zer berri ekartzen dautak?... Egia nahi diat jakin!... Egia duka herresta bat bilakatua dela?

BENAT: Egia da!

BATTITTA: Zapeta ziratzetik bizi dela?

BENAT: Egia da.

BATTITTA: Bon, aski badiat ikasirik... (*Mentaberriri idorki*) Ean?... Nun gira orai? Nun dira zure, haren partiadako agintza eta espan-tuak?

MENTABERRI: Hau, eta hura, biak betan urrundu dira... Hunek egin duena, harek ere egin zezakeen! Ez da ene falta ahula agertu bada.

BATTITTA: Aberastu ba, aberastu... Ez dira ez harat joaiten direnak aberasten... bainan, harat gazte horien igortzale trafikantak!

MENTABERRI: Ene ofizioa, ez da trafikatu bat, lan zuzen bat da!

BATTITTA: Trafiku bat, ba, Mentaberri... Eta trafikutan hitsena: jenden trafikua... Han, amerikano handi-mandi batzu, euskaldun haragi eske, eta zu, heien fornitzale!

MENTABERRI: Ori! Hola estimatzen baduzu amerikanoek euskalduneri egiten dioten fagorea!

BATTITTA: Fagoratu nahi bagituzte, jin ditela amerikano handi hek gutarterat, eta lantegiak, hemen berean munta ditzatela gure gazteentzat.

MENTABERRI: Aski diozute bereri galdatzea hola egin dezaten... Behar-bada obedituko zituzte!

BATTITTA: Gure tokia Amerikak husten ari du, eta euskaldunak betetzen... Ixtantean arrotz dirudunek Euskal Herria ezarriko dute euskaldunik gabe!

MENTABERRI: Prediku ederra da: Euskal Herria euskaldunentzat, bainan, dakizun bezala, Battitta, diruduna ez da predikuaren mutil, bainan intresaren.



BATTITTA: Ba, eta zu, dirudunekin hortan partzuer. Zu zakur handien xakur!

MENTABERRI: Bakotxa bere buruaren jabe da, nahi duen bizi-moldeari lot.

BENAT: Hum! Hala zen harat galtzerat igorri duzun hura ere... Maluruski, hala zen... (*Urruntzen da*)

MENTABERRI: Hauxe da gizon horren jazarkundea! Bizkitartean, ez dut nehoi bortxarik egiten! Egin-azue ongia! Horra mileske-rra! (*Espaldak altxatuta, ostatuan sartzen da*)

VII

TEREXA, BENAT

(*Ixtant bat ixilike*)

TEREXA: Ez duzue iduri denak gogo bereko zireztela Amerikaz! Zuk, zer pentsatzen duzu?... Amerika gazteen galtzeko ala ontzeko dela?

BENAT: Terexa gaixoa, gaztea landare bat bezala da. Landare azkarra desterra ditake eta lur arrotzean sar... Azkarra delakotz, lur arrotzean ere, berdin ontsa emanen du... Landare ahula berritz, hobe da ez desterratzea. Bere sort-lurretik kanpo, ez baitu deus onik emanen! Halaber euskaldun gazte funtsezko azkarra, edozoin arrotzekin ere ontsa emanen da. Gazte funts gabe ahula aldiz, Euskal Herrian jada guti izanen da-eta, Euskal Herritik kanpo bat ere ez!

TEREXA: Eta zu, hango itzuliaz kontent zirea?

BENAT: Ha, ez dut urriki han gairi ibilirik... Ikusirik, hainitz ikasi dut... Haatik, behin, bainan ez bietan. Ez eni, berritz harat joaiterik aipa! Nik desiratu Amerika, ene bizi ondarrekotz, hemen da: ene sort-herria, bere zeru ta mendixka airosekin, bere etxe xuri, bere erreka garbi, pentze ta oihan ederrekin... Eta horien erdian, zu, Terexa! (*Eskua luzatzen dio*)

OIHALA